

UPV/EHUko INKLUSIO II. PLANA

2012 - 2017

2012ko ekaina

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua



IKASLEEN ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE ALUMNADO

Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

UPV/EHUko INKLUSIO II. PLANA

2012-2017

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

Elena Bernarás Iturrioz
Ane Amondarain Rodríguez
Kepa González Antona
Mamen López Lizarralde

2012ko ekaina

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
1 Atarikoa	9
2 2001eko Integrazio Planaren ebaluazioa	12
2.1. 2001eko Integrazio Planaren programen ebaluazioa	12
2.1.1. Oztopo arkitektonikoak kentzeko programa	13
2.1.2. Motibaziorako eta hurbilketarako programa	14
2.1.3. Sarbideko azterketen egokitzapenerako programa	14
2.1.4. Ikasle minusbaliatuentzako laguntza eta orientazio akademikorako berariazko programa	15
2.1.5. Irakasleriaren eta AZPren trebakuntzarako programa	16
2.1.6. Egokitzapen curricularrerako programa	16
2.1.7. Ikasle minusbaliatuentzako laguntza teknologikorako programa	17
2.1.8. Ikasle minusbaliatuei laguntzeko programa	17
2.1.9. Lan munduan txertatzeko programa	18
2.1.10. Unibertsitateko komunitatea sentsibilizatzeko programa	18
2.2. Ezgaitasunak dituzten ikasleen tipologia, ezaugarriak eta bilakaera	19
2.2.1. Ezgaitasunak dituzten ikasleen tipologia	19
2.2.2. Ezgaitasunak dituzten ikasleen bilakaera	21
2.2.3. Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen bilakaera	22
2.2.4. Ezgaitasunak dituzten ikasleen beharren bilakaera	24
2.3. Egoeraren AMIA azterketa	28

3	UPV/EHUko Inklusio II. Planaren helburu orokorrak	30
4	UPV/EHUko Inklusio II. Planaren Ardatz Estrategikoak	31
4.1.	Informazioa, aholkularitza eta orientazioa	32
4.1.1.	Unibertsitate sarrerako ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta programa	32
4.1.2.	Ezgaitasunak dituzten sartu berrien ikasleen harrera programa	33
4.1.3.	Ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta unibertsitateko egonaldi programa	33
4.1.4.	Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen laneratze programa	34
4.2.	Aukerak parekatzea	35
4.2.1.	Giza baliabideen kudeaketa programa	35
4.2.2.	Baliabide teknikoaren kudeaketa programa	36
4.3.	Prestakuntza eta sentsibilizazioa	37
4.3.1.	Sentsibilizazioa programa	37
4.3.2.	Prestakuntza programa	38
4.4.	Irisingarritasun unibertsala	39
4.4.1.	Irisingarritasunezko eskaeren arreta programa	40
4.4.2.	Komunikaziorako irisingarritasuna eta irisingarritasun arkitektonikoa programa	41
5	UPV/EHUko Inklusio II. Planaren kalitatea bermatzeko prozedurak	44
6	Bibliografia	45
	I. eranskina: lege esparrua	48
	II. eranskina: taulak	51

AURKEZPENA

Iñaki Goirizelaia
UPV/EHUko errektorea

II. Inklusio Plana onartzea eta abian jartzea konpromiso baten ondorio logikoa izan da, unibertsitateko kide guztien konpromisoa, gizartearen eskaera eta beharrei erantzuteko gai izango den unibertsitate ireki bat eraikitzeko.

Alde horretatik, plan hau beste urrats bat izan da duela hamar urte baino gehiago hasi genuen bidean, hainbat etapa izan dituena: hala nola I. Integrazio Plana onartzea edo Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua sortzea. Neurri hauek guztiak egoki eta eraginkorrak izan dira, pertsona jakin batzuen beharrei erantzuteko ez ezik, baita unibertsitateko ateak kolektibo gero eta handiago bati zabaltzeko ere. Behar baten ondorio izan zitekeena, hortaz, akuilu izan da orobat beste pertsona ezgaitu askoren goi-mailako hezkuntzarako eskubidea gauzatzeko. Ezgaitasunen bat duten ikasleen kopurua gora doa etengabe, eta horrek agerian uzten du Euskal Herriko Unibertsitateak egin duen eta egiten ari den ahalegina eskubide hori bermatze aldera.

Sarri askotan aukera izan dut gogorarazteko zein den goi-mailako hezkuntzara iristeko egiazko prozesu selektiboa. Unibertsitate-prestakuntza oso jarduera zorrotza da, eta norberaren lanak eta gaitasun intelektualak izan behar dute aurrera egiteko irizpide bakar. Ezin da onartu unibertsitaterako sarbidea oztopatu edo galaraziko duen beste mugarik. II. Inklusio Planak eta Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak eskubide hau bermatzea dute eginkizun.


Aukera-berdintasuna helburu bat da berez unibertsitatearen bizitzan, eta zinez uste dugu plan honek helburu hori betetzen lagunduko duela.

1 ATARIKOA

2001ean, Gobernu Kontseiluak “Minusbaliotasunak dituen unibertsitateko komunitatea EHUn Integratzeko Egitasmoa” (I. plana, 2001) onartu zuen, gaur egun indarrean dagoena eta Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak landu zuena. 2003ko abenduan, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua sortu zen, Ikasleen Errektoreordetzaren mendeko zerbitzua, hiru campusetako ezgaitasunak dituzten ikasleei arreta eskaintzen diena. Zerbitzua Gipuzkoako Campusean kokatu zuten.

Urte hauetan lan handia egin da eta urte emankorrak izan dira; artatutako ikasleen kopurua sei bider hazi da, eta horien beharren kudeaketa hobetzeko tresnak sortu dira. Halaber, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren giza baliabideek gora egin dute nabarmen, eta zerbitzuak hiru campusetan dauzka arretarako unitateak gaur egun.

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak, ezgaitasunetan aditu den teknikari arduradun bat, orientazio arloko hiru teknikari eta administrari laguntzaile batek lan egiten dute, eta campus bakoitzeko unitateetatik garatzen dute euren jarduna; horiez gainera, laguntzarako langileak ere badauzka zerbitzuak, zehazki, motore urritasun mugatua duten ikasleei hezkuntzako laguntza eskaintzen dieten teknikari espezialistak eta ikasle gorrei laguntzen dieten zeinu hizkuntza interpreteak.



UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko organigrama

10 urte igarota, dagoeneko I. plan hura eguneratzeko garaia heldu da, baita gure jarduna egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzekoa ere. Inklusio terminoa ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta zuzenetik haratago doan terminoa da, unibertsitateko komunitateari zuzendua, hain zuzen ere ezgaitasunak dituzten pertsonak kide sentitu arazteko gizarte guneak dituen unibertsitate bat eraiki behar da eta ikaskideez osatutako laguntza taldeak sortu bai arlo akademikoan laguntzeko eta baita ere gizarte arloan.

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak ez du orduan bezala lan egiten; ezgaitasunak dituzten ikasle kopuruaren hazkuntza berak eta tipologiak behartu egin gaituzte jardunak ardatz estrategikoen bidez definitzera eta lana zenbait arlotan bereiztera.

Unibertsitateko esparruak berak aldaketa ugari proposatzen ditu unibertsitateko jarduera akademikoaren irakaskuntzako kudeaketan eta antolaketan, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GMHEE) abiarazi dutenetik. Zalantzarik gabe, GMHEEek dakartzan aldaketek eragina dute ezgaitasuna duten ikasleengan, eta, hori dela-eta, beharrezkoa da haiek unibertsitateko ikasketetan parte hartuko dutela eta arrakasta izango dutela bermatuko duten laguntza-neurrien plangintza egitea. Aukera-berdintasuna lortzeko egiten dugun lana islatuko duen plan berria behar dugu; plan horrek urritasunari begirako arretarekin lotutako gizarteko eta legetako eskakizun berriak ere aintzat hartu beharko ditu.

Plan hau garatzeko printzipioa ezgaitasunak dituzten ikasleen aukera-berdintasuna bermatzea da, Nazio Batuen Konbentzioak ezgaitasunak dituzten pertsona eskubideen gainean ezarritako printzipioen arabera: berezko duintasunari begirako errespetua; norbanakoaren autonomia, erabakiak hartzeko askatasuna barne; norbanakoen independentzia; diskriminaziorik eza; gizartean erabateko partaidetza eta inklusioa; bereizketari begirako errespetua eta ezgaitasunak dituen pertsona onartzea, giza baldintzak eta aniztasunaren adibide gisa; aukera-berdintasuna; irisgarritasuna eta erabilerraztasuna.

Euskal Herriko Unibertsitateak konpromiso berezia dauka aukera-berdintasunari begira eta ezgaitasunen bat duten ikasleentzako arretaren hobekuntzari begira, plan estrategikoan eta estatutuetan jasota dagoenez.

2012-2017 UPV/EHUko Plan Estrategikoak bere helburuen artean jasotzen du hurrengo konpromisoa (Gobernantza eta Kudeaketa IV ardatza) *“unibertsitate-komunitatearen kohesio handiagoa sustatuko du. Xede horietarako, UPV/EHUK kontuan izango ditu honako printzipio hauek: aukera-berdintasunarena, aniztasunaren eta diferentziaren errespetuarena”*. Halaber, ekintzen artean (Konpromiso soziala V Ardatza) hurrengoa aipatzen du *“unibertsitate-jarduera guztietan aniztasunarekiko arreta sustatzea, inklusioa erraztuz eta bereizketak ematen duen aberastasuna onartuz”*.

Hala bada, urtarrilaren 15eko **17/2011 Dekretuan**, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzeko emandakoan, zenbait artikulua ageri dira ezintasunaren trataerari dagokionez:

4. artikuluko 2.b atalean, UPV/EHUren helburuen artean aipatzen dute, zehazki, premia bereziak dauzkaten pertsonak unibertsitateko kideen artean integratzea sustatu beharko dela.

Zehazki, II. tituluan, unibertsitateko kideei buruzkoan, V. kapitulua premia bereziak dauzkaten pertsonen gainekoa da.

Honela dio kapitulu horretako 67. artikulua: *“UPV/EHUK ekintzak bultzatuko ditu premia bereziak dauzkaten unibertsitateko kideek eta gainerako kideek aukera berdintasun berberak daukatela ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu premia bereziak dauzkaten pertsonen eskura”*.

Era berean, 68. artikuluan atal hauek daude jasota:

1. *UPV/EHUK bermatu egingo die aukera berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipatutako pertsonen parte hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean.*
2. *Ezintasunak dauzkaten ikasleak eta unibertsitateko gainerako kideak ezin izango dira izan diskriminatuak beren ezintasunagatik, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitate sartzeko prozesuan, bertan ari direnean, eta titulu akademikoak edo onartuta dauzkaten bestelakoak baliatzean.*
3. *Ezintasunak dauzkaten ikasleek horrelakorik behar balute, unibertsitateko ikastegiekin eta sailekin esanguratsuak ez diren egokitzapen curricularrak egingo lituzkete eta ikasleen beharretara moldatutako tutoretza espezifikoak ezarriko.*
4. *UPV/EHUK egokitu egin beharko du bere ingurunea, legeriak xedatutakoari jarraiki, ezintasunak dauzkaten pertsonak oztoporik gabe ibili ahal izan daitezen bertan.*
5. *UPV/EHUK kontuan hartuko du ezintasunak dauzkaten pertsonen lana emateko arautegietan xedatutakoa, eta aplikatu egingo du langileak hautatu eta kontratatzean.*

2 2001eko INTEGRAZIO PLANAREN EBALUAZIOA

2.1. 2001eko INTEGRAZIO PLANAREN PROGRAMEN EBALUAZIOA

2001ean Integrazio Plana onartzea ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta antolatua eskaintzen hasteko abiapuntua izan zen, UPV/EHUK onartu egin baitzuen ezgaitasunen bat duten pertsonen unibertsitateko ikasketetara sartzeko izan behar duten aukera-berdintasunaren printzipioa. Helburu batzuez gain, Planak zenbait jarduera eta baliabide jasotzen zituen, baita haiek lortzeko antolamendua ere. Helburuak, oro har, bete egin dira, baina ekintzak, baliabideak eta antolamendua aldatu egin dira Planean adierazitakoetatik. Hemen deskribatuko ditugun alderdiek zerikusia izan dute horretan.

2003ko abenduan, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua sortu zuten, eta horrek hartu zituen beregain ikasleen arretarako ekintza guztiak, hasieran Ikasleentzako Argibide Zerbitzuaren esku zeudenak. Jarduera guztiak ikastegien, zerbitzuen eta campusen laguntzaz gauzatu dituzte. Bestalde, integrazio-plana onartu zutenetik gaur arte, artatu beharreko ikasleen kopuruak etengabe egin du gora: 2001-2002 ikasturtean 94 ziren; 2010-2011 ikasturtean, berriz, 332. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak langile gehiago dauzka, eta azken hiru urteetan arretarako unitateak sortu dituzte Arabako eta Bizkaiko campusetan, ezgaitasunak dituzten ikasleei arreta zuzenagoa eskaintzeko campus bakoitzean.

Hasieran, ezgaitasunak dituen ikasle gutxi zeuden, eta proposatutako helburu eta jardueren bidez erantzun egin nahi ziren ikasle hauen premiak: guneak erreserbatzea, tresnak eskaintzea eta arkitektura-oztopoak ezabatzea; Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin harremanetan jartzea, ikasle horiek unibertsitateara sartzeko proban izango zituzten beharrei erantzuteko; ezgaitasunak dituzten ikasleei unibertsitateko ikasketak hastean harrera egiteko eta haiek egin bitartean aholkularitza eskaintzeko bideak aurkitzea; irakasleei curriculumean beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko baliabideak ematea; premia bereziak dituzten ikasleei curriculumeko oztopoak ezabatzeko baliabide teknikoak ematea; boluntarioen gizarte-hezkuntzako eginkizuna eskaintzea; UPV/EHUKo laneratze-programa espezifikoak prestatzea; unibertsitateko kideak prestatzea eta sentiberatzea, eta irakasleei prestakuntza espezifiko eskaintzea.

Plan horren helburu orokorrak honela laburbil daitezke: ezgaitasunen bat duten pertsonen unibertsitateko ikasketak egiteko aukera-berdintasuna izan dezaten bermatzea eta unibertsitatea proiektio berri baten begirada eman, ezgaitasunak dituzten ikasleen gune gisa aurkeztea, gure ekintzen bidez haien integrazioari buruzko eztabaida soziala sustatzeko. Orduz geroztik, bitarteko, baliabide eta prozedura ugari ezarri ditugu, helburu horiek erdiesteko, eta, aurrerago xehetasun handiagoz ikusiko

dugun moduan, programen oinarrizko helburuak bete ditugula ondoriozta dezakegu, nahiz eta jarduerak aldatu egin diren hasieran proposatutakoekin alderatuta.

2004tik aurrera, I. Integrazio Planean esku hartzeko aurkeztutako hamar programak esku hartzeko lau ardatzetan berregituratu genituen, eta horien inguruan egin dugu lana (ikus 1. taula).

2001eko Integrazio Planean esku hartzeko ezarritako programak	2004tik aurrera esku hartzeko erabilitako ardatz estrategikoak
Oztopoa arkitektonikoak kentzea	Irisgarritasun unibertsala
Motibazioa eta hurbilketa	Informazioa, aholkularitza eta orientazioa
Sarbide azterketen egokitzapena	
Ikasle minusbaliatuei laguntza eta orientazio akademikoa	
Irakasleriarentzat prestakuntza	
Egokitzapen curricularra	
Laguntza teknologikoa	Aukerak parekatzea
Ikasle minusbaliatuei laguntza	
Lan munduan txertatzea	Prestakuntza eta sentsibilizazioa
Unibertsitateko komunitatearen sentsibilizazioa	

1. taula. 2001eko Integrazio Planean esku hartzeko ezarritako programen eta 2004tik aurrera Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak esku hartzeko erabilitako ardatz estrategikoen arteko elkarrekikotasuna

2.1.1 Oztopo arkitektonikoak kentzeko programa

2001eko Planak arkitektura-oztopoak antzematea eta ezabatzea, ikasketa-guneak eta egoitzak egokitzea, sarbideak hobetzea, guneak erreserbatzea eta tresna espezifikoak eskaintzea proposatu zituen helburutzat, eta, xede horiek lortzeko, jarduteko protokolo bat ezarri zen 2005ean. Protokolo horretan, elkarrekin lan egiten dugu Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak, ikastegiekin eta unibertsitateko zerbitzuekin, eta campusekin, irisgarritasun unibertsalaren gaineko programaren baitan. Protokolo horren

bidez, garatu egin dira keak jasotzeko eta haiek bideratzeko jarduerak, arkitektura-oztopoak ezabatzeko jarduerak eta behar dituzten neurriak eskaintzeko jarduerak. Guztira, 783 esku-hartze gauzatu ditugu arlo horretan. (ikusi 9. taula).

Aurreikusitako beste jarduera batzuk ez ditugu garatu, hala nola arkitektura-oztopoak ezabatzeko gida prestatzea edo arlo horretako ekintzen jarraipena egiteko batzorde aholkulari bat eratzea.

2.1.2. Motibaziorako eta hurbilketarako programa

Programa horretan, honako helburu hauek aipatzen ziren: Bigarren Hezkuntzako ikasleei informazioa ematea, haien egoerari eta premia bereziei buruzko informazioa jasotzea, Bigarren Hezkuntzako orientazio-zerbitzuarekin harremanetan jartzea eta 25 urtetik gorakoentzako sarrera-probetarako laguntza eta orientazioa eskaintzea. Haiek lortzeko ekintzak ezintasunen bat duten pertsonen unibertsitatean sartzeko arreta eskaintzeko arloaren bidez gauzatu ditugu 2005. urteaz geroztik, "Informazioa, aholkularitza eta orientazioa" izeneko egungo programaren baitan. Programa horrek Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen eta etapa horretako orientazioko eta laguntzako zerbitzuen arteko koordinazioa bermatu du.

Jarduerari dagokienez, koordinaziorako bideak ezarri ditugu aurreikusitako Berritzeguneekin eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin. Halaber, programan sartu ditugu 25 urtetik gorakoentzako sarrera-probak eta, azken urteetan, 45 urtetik gorakoentzako sarrera-probak. Guztira 152 eskaera izan dira hautaprobetan egokitzapenak behar izan dituzten unibertsitate-aurreko ezgaitasunak dituzten ikasleak.

2.1.3. Sarbideko azterketen egokitzapenerako programa

Programa horren helburua unibertsitatera sartzeko probak eta titulu batzuetara sartzeko proba espezifikoak ezintasunak dituzten pertsonen beharretara egokitzea zen, eta hori betetzeko jarduerak 2006-2007 ikasturteetik aurrera garatu genituen, ezgaitasun bat duten pertsonen unibertsitatean sartzeko arreta eskaintzeko arloaren bidez, "Informazioa, aholkularitza eta orientazioa" izeneko programaren baitan.

Aurreikusitako jarduerak unibertsitatera sartzeko probetan ezgaitasunen bat duten pertsonen arreta eskaintzeko protokoloaren arabera garatu ditugu. Protokolo horren jarduera nagusia USPen zuzendariaren, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikastetxeen eta proba horien epaimahaien artean premia bereziak dituzten ikasleei begirako egokitzapenak kudeatzeko izan beharreko koordinazioa sustatzea da (ikusi 2. taula).

Ikasturtea	Sexua	Unibertsitate- aurreko ikasleak	Sarrera-probetan artatutako ikasleak	UPV/EHUra sartutako ikasleak
2006-2007	Emakumeak	15	6	2
	Gizonak	11	3	5
	Guztira	26	9	7
2007-2008	Emakumeak	15	9	10
	Gizonak	23	10	7
	Guztira	38	19	17
2008-2009	Emakumeak	14	10	5
	Gizonak	28	18	13
	Guztira	42	28	18
2009-2010	Emakumeak	28	14	15
	Gizonak	26	24	13
	Guztira	54	38	28
2010-2011	Emakumeak	35	27	10
	Gizonak	47	31	17
	Guztira	82	58	27
GUZTIRA		242	152	97

2. taula. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak USPetan artatutako ikasleen bilakaera 2007-2011 epean.

2.1.4. Ikasle minusbaliatuentzako laguntza eta orientazio akademikorako berriazko programa

Programa horretan jasotako helburuak harrera, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea eta ezgaitasunaren ondoriozko diskriminazio-egoerak ezagutzea ziren, eta horiek erdiesteko jarduerak 2005. urtetik aurrera gauzatu ditugu, "Informazioa, aholkularitza eta orientazioa" izeneko egungo programaren bidez, ezintasunen bat duten ikasle hasiberrientzako arretaren eta ikasle ezgaitasunen jarraipenaren arloetan. Harremanetan jartzen gara ezgaitasunak dituen ikaslearekin; informazioa eta aholkua eskaintzen dizkiogu, eta haren behar espezifikoak ezagutzen eta ebaluatzen ditugu, erantzun egokiena emateko asmoz.

Guztira, 677 esku-hartze gauzatu ditugu arlo horretan (ikusi 5. taula). 2006-2007 ikasturteaz geroztik, informazio-gida bat igortzen diegu Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren erroldan dauden ikasle hasiberri guztiei.

2.1.5. Irakasleriaren eta AZPren trebakuntzarako programa

Programa horren helburua unibertsitateko irakasleei prestakuntza eskaintzea zen. Aurreikusitako jarduera talde horri ikastaroak eskaintzea zen. Ikastaro horiek Hezkuntza Zientzien Institutuaren bidez jasoko zituzten; institutu hori Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzu (EIZ), Irakaskuntza Ebaluatzeko Zerbitzu (IEZ) eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu (HELAZ) bilakatu zen. Sortu zenetik, azken horren arduraria da irakasleen prestakuntza sustatzea eta antolatzea. Bestalde, irakasleei ezgaitasunak dituzten pertsonen elkarteekin eta curriculum-egokitzapenean eskarmentua zuten irakasleekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzea proposatu zen.

2010ean AZPren Prestakuntza Plan Nagusia onartu zutenetik, talde horri ezgaitasunaren gainean eskainitako prestakuntza unibertsitatearen prestakuntza-eskaintza orokorraren baitan egon da, eta urtero eskaini dira ezgaitasunen bat duten pertsonen begirako arretarekin lotutako zenbait ikastaro.

Irakasleentzako informazioari dagokionez, eskuliburu praktikoa bat prestatu genuen, haiek sentiberatzeko eta ezgaitasunak dituen ikasleen ezaugarriak, haiekin irakaskuntzan jarduteko jarraibideak eta haien behar bereziak oro har ezagutarazteko. Hasieran batik bat, funtsezkoa izan zen ezgaitasunen elkarten laguntza eta babesa, eta gaur egun ere haiekin harremanetan jarraitzen dugu, beharrezkotzat jotzen dugunean haien aholkua jasotzeko. Egoerak oso heterogeneoak direla aintzat hartuta, testu hura ez zen nahikoa, eta irakasleentzat ikasleei buruzko txosten indibidualak prestatu behar genituela erabaki genuen. Txosten horiek lauhileko bakoitzean egiten ditugu, irakasleek ikasle horien gaineko informazioa izan dezaten haiei eskolak ematen hasi aurretik. Txosten horietan, egoera bakoitzaren berezitasunak ezagutarazteaz gain, arretarako neurriak, irakaskuntzan jarduteko jarraibideak eta behar berezietan begirako erantzuna babesten duen arautegia ezartzen ditugu. Nolanahi ere, irakasleek ezgaitasunak dituen ikasleen behar berezien gainean eta 2001eko Planean proposatutako inklusiorako irakaskuntza-metodologiaren gainean jaso beharreko prestakuntza ez da gauzatu, eta ahultasun edo oztopotzat adierazi dugu gerorago AMIA azterketan.

2.1.6. Egokitzapen curricularrerako programa

Programa horrek helburu hauek zeuzkan: irakasleei curriculumak ikasle ezinduen beharretara egokitzeko aholkularitza teknikoak ematea eta curriculumak egokitzeko beharrezko baliabide teknologikoak haien eskura jartzea. "Informazioa, aholkularitza eta orientazioa" izeneko egungo programaren bidez, irakasleei informazioa eta aholkua eskaini diegu ezgaitasunen bat duten ikasleei buruz, ezgaitasunen ezaugarriak buruz eta beharrezko egokitzapenei buruz.

Irakasleek, orientazioko teknikariek eta irakasleek zenbait desadostasun zeuzkaten curriculum-egokitzapenei buruz, eta desadostasun horiek ohiko koordinazioaren

eremuan ebatzi dituzte, beraz, orain arte behintzat ez da beharrezkotzat jo bitartekotzalanak egiteko adituen batzorde bat ezartzea (2001eko Planean jasota dago hori). Bestalde, arautzeko dago zer-nolako kudeaketa akademikoa egingo den eta zenbaterainoko betebeharrak izango dituzten irakasleek hezkuntza-premia bereziko ikasleen ezaugarriei erantzuteko curriculuma egokitzea beharrezkoa denetan.

Egokitzapenak edo/ta adostasunak ikastegiekin batera kudeatzen dira. Egokitzapenak sarbidekoak eta curriculumarenak izan daitezke. Sarbideko egokitzapenak giza baliabideei, baliabide teknikoari, altzarien egokitzapenari, irisgarritasunari eta abarri lotutakoak dira. Unibertsitatean kudeatutako curriculum-egokitzapenak irakasgaien metodologiako eta ebaluazioko elementuetan bakarrik dute eragina.

Premia bereziak dituzten ikasleen curriculum-egokitzapena errazteko, ikasturtero ikasleen ezgaitasunei buruzko txostenak igortzen zaizkie irakasleei, eta irakaskuntzan eta azterketetan jarduteko jarraibideak ere jasota daude bertan. Irakaskuntzan jarduteko jarraibideen 601 eskaera (ikus 3. taula) eta azterketetan jarduteko jarraibideen 797 eskaera ebazteko txostenak igorri dira. (ikus 4. taula)

2.1.7. Ikasle minusbaliatuentzako laguntza teknologikorako programa

Programa horren helburua ezgaitasunen bat duten ikasleei curriculumean baldintza beretan aritzea ahalbidetuko zieten baliabide teknologikoak ematea zen. Xede hori erdiesteko ekintzak 2005. urteaz geroztik garatzen dira, "aukera-berdintasuna" izeneko egungo programaren baitako baliabide teknikoen kudeaketaren arloaren bidez.

Aipatutako helburua lortzeko, ez dugu baliabideen zentro bat sortu, 2001eko Planean adierazita zegoen moduan, baina beharrei erantzun diegu, ikasleei eskatutako baliabideak eskainiz, bai UPV/EHUk berak eskuratuta (Ikasleen Errektoreordetza, ikastegiak, zerbitzuak), bai baliabide teknologikoen bilaketa haiek hornitzeaz arduratzen diren erakunde edo instituzioekin koordinatuta. Programa hori garatzeko, bi irizpide izan ditugu kontuan: ikasleen beharrak asetzea, eta baliabideak optimizatzea, haien berrerabilpena sustatuz eta erabili gabeko materialaren pilaketa ekidinez. Guztira, 21 esku-hartze gauzatu ditugu arlo horretan. (ikus 8. taula).

2.1.8. Ikasle minusbaliatuei laguntzeko programa

Programa horren helburua ezgaitasunak dituen ikasleei laguntza behar zuten egoera fisikoetan konpainia eskaintzea zen, eta horretarako boluntarioen sare txikiak sortzea ikasle ezinduek hartzen zituzten ikastegietan. Konpainia behar duten ikasle ezinduei laguntza hori bermatzeko ekintzak "Aukera-berdintasuna" izeneko egungo programaren baitako giza baliabideen kudeaketako arloaren bidez gauzatu ditugu. Programa horren

oinarria ez dira ikasle ezinduen ikaskideen artetik aterako boluntarioak, 2001eko Planean proposatutako moduan, baizik eta UPV/EHUk kontratatutako profesionalak; boluntarioak zenbait kasu zehatzetarako edo lan osagarrietarako (esaterako, apunteak hartzea) bakarrik sustatu dira. Guztira, 73 esku-hartze gauzatu ditugu arlo horretan. (ikusi 7. taula)

2.1.9. Lan munduan txertatzeko programa

Programa horren helburua ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunak lan-munduan sar daitezzen erraztea zen. Horretarako, bi ekintza proposatu ziren: lehena, berriazko eremu bat sortzea UPV/EHUren laneratze-programetan, eta bigarrena, gai horrek arduratzen dituen elkarte eta erakundeekin harremanetan egotea.

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak 2005etik aurrera abiarazi zituen ekintzak, "Informazioa, aholkularitza eta orientazioa" izeneko egungo programaren baitako laneratze arloaren bidez. Ikasketak bukatu dituzten ezgaitasunak dituzten tituladunen buruzko datu-base bat prestatu dugu; lana bilatzeko orientazioa eskaini diegu, eta bitartekari-lanak egin ditugu ezgaitasunak dituzten tituladunentzako lan-eskaintza espezifikoeetan. Guztira, 280 tituladuneri informazioa helarazi diegu (ikusi II. eranskineko 3. taula) eta 55 esku-hartze egin ditugu ezgaitasunak dituzten ikasle tituladuneri lan-eskaintzetan bitarteko-lanak egiten.

2.1.10. Unibertsitateko komunitatea sentsibilizatzeko programa

Programa horren helburua zen unibertsitateko kideak pertsona ezinduei begirako elkarbizitzako arau praktikoen gainean sentiberatzea, elkarbizitzak eginkizun aktiboa har zezan haiek integratzeko programan. Helburu hori lortzeko ekintzak 2005. urteaz geroztik gauzatu ditugu, "Prestakuntza eta sentiberatzea" izeneko egungo programaren bidez.

Proposatutako ekintzei dagokienez, elkarbizitzako arauak adierazteko horma-irudiak prestatu genituen, eta unibertsitateko campusetan zabaldu. Halaber, urtero prestatu eta banatu ditugu ezgaitasunari buruzko hainbat material, eta aldian-aldian unibertsitateko kideak sentiberatzeko kanpainak eta ikastaroak garatu ditugu.

Programa ikastegiekin, campusekin eta prestakuntza eta gestio hobekuntzarako gerenteordetzarekin lankidetzan gauzatzen dugu.

2001eko Planean ekintza hauek ere proposatu zituzten:

- Urtero, UPV/EHUUn ikasten duten ezgaitasunak dituen ikasleen errolda egitea. Erroldan, tituluak eta ezgaitasun motak zehaztuko ziren. 2000-2001 ikasturteetik, halako errolda bat egiten dugu urtero, eta bertan jasotzen dugu ikastegi bakoitzeko ezgaitasunak dituzten ikasleen izena, ikasten ari diren titulua, ezintasun mota eta beharrak.
- IAZko langileak hasieran eta aldiari behin antzemandako eta adierazitako beharren eta eskaeren arabera prestatzea, Planaren eremu espezifikoa lan egiteko. 2003. urtean sortu zenetik, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratu da Planean aurreikusitako programak kudeatzeaz edo ekintzak sustatzeaz, baita haien ordezkari proposatutakoak ere; hortaz, prestakuntza espezifikoa zerbitzu horretako langileei eskaini zaie, ez IAZko langileei.
- Ezgaitasunen bat duten ikasleentzako kirol-jarduerak sustatzea. Arlo horretan, zenbait ekintza gauzatu ditugu Kirol Zerbitzuaren laguntzaz, kirol egokitua egitea errazteko.
- Beste ekintza batzuk ez ditugu garatu: ez dugu unibertsitateko ezgaitasunak dituen ikasleen elkarteak sortu, eta ez dugu ikasle ezinduei begirako elkarkidetza-programa bat sustatu aldundien bitartez (adineko pertsonen begirako elkarbizitza-programaren antzekoa).

2.2. EZGAITASUNAK DITUZTEN IKASLEEN TIPOLOGIA, EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA

Azken urteetan, nabarmen egin du gora UPV/EHUUn matrikulatutako ezgaitasunak dituzten ikasleen kopuruak. Xedapen arautzaileek, unibertsitate-aurreko hezkuntzako politikek, I. Planaren onarpenak eta ezgaitasunak dituzten ikasleen ahaleginak berak erraztu egin dute haiek goi mailako ikasketetara iristea. Plaza mugatuko tituluetan kopuru bat erreserbatzea, tasetatik salbuestea, baliabide teknikoak nahiz giza baliabideak eskaintzea, zerbitzua hiru campusetara hedatzea eta beste neurri positibo batzuk alderdi bideratzaileak dira, eta bermatu egiten dute ezgaitasunak dituzten ikasleen partaidetza eta aukera-berdintasuna. Ikasleen eta haiek adierazitako beharren bilakaerari erreparatuko diogu.

2.2.1. Ezgaitasunak dituzten ikasleen tipologia

Ikuspegi eta eredu teoriko berriek aldaketa handia ekarri dute ezgaitasuna ulertzeko moduan. Gizabanakoaren egoera ez ezik, ezgaitasuna funtzionatzeko modu jakin bat ere bada, eta baldintza multzo konplexu batekin lotuta dago, batzuk pertsonalak eta beste asko ingurune fisiko eta sozialari lotuak. Unibertsitateko testuinguruan eskaini behar ditugu ingurunearen eta norbanakoaren arteko aldeak ahalik eta txikiak izateko

laguntzak eta egokitzapenak, ezgaitasunen bat duten ikasleek gehiago parte hartzea bermatzeko.

Unibertsitateko ikasleen premia bereziek ezgaitasun bat dute jatorri, baina badira ikaskuntzako zenbait nahasketa, hala nola dislexia edo irakurtzeko nahasketa, ezgaitasunik ez badute ere premia bereziak dakartzatenak. Ikasten ari diren ezgaitasuna duten ikasleak oso anitzak dira, eta haien ezgaitasunetatik eratorritako beharrak arras heterogeneoak, alderdi askoren arabekoak baitira, hala nola ezgaitasun gradua, haren bilakaera, ingurune fisikoa edo beste hainbat aldagai (aldagai pertsonalak, familiako aldagaiak, hezkuntzako aldagaiak, etab.). Hori dela-eta, ezgaitasun bat duten ikasleen beharrak ere era askotakoak dira.


Ezgaitasunak dituzten ikasleen premia bereziak oinarri hartuta, UPV/EHUUn dauden ezgaitasunen ezaugarriak eta sailkapena lau kategoriatan banatzen dira:

- Ikusmen urritasuna
- Entzumen urritasuna
- Motore urritasuna
- Bestelakoak

Beste ezgaitasun batzuen artean, aurreko kategorietan sar ez daitezkeen guztiak daude, besteak beste: gaixotasun organikoak, nahaste psikikoak, ikasteko zailtasuna (irakurtzeko, idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko edo arreta jartzeko zailtasunak dauzkaten ikasle talde heterogeneoari egiten dio erreferentzia), eta “sailkatu gabeko” beste batzuk, hala nola urritasun anitzak eta gaixotasun arraroak.

2.2.2. Ezgaitasunak dituzten ikasleen bilakaera

Azken hamar urteetan, asko handitu da UPV/EHUn ezgaitasunen bat dutela aitortu duten ezgaitasunak dituzten ikasleen kopurua. I. Integrazio Plana abian jarri zenean, 55 ikasle zeuden erroldatuta, eta 2010-2011 ikasturtean, berriz, 332, hortaz, igoera % 604koa izan da. 1. grafikoa islatuta ikus dezakegu bilakaera hori.¹




1. grafikoa. UPV/EHUn ezgaitasunak dituzten erroldatutako ikasleen bilakaera 2001etik 2011era.

Dokumentuaren II. eranskinean (1. taula), UPV/EHUn erroldatutako ezgaitasuna duten ikasleen datuak ageri dira, sexuaren eta ezgaitasun motaren arabera bereizita. Sexua aintzat hartuta, alde txikiak izan dira ikasle horien bilakaeran emakumeen eta gizonen artean, betiere, % 10 baino txikiagoak. Lehenengo ikasturteetan, emakumeen kopurua arinki handiagoa zen; 2005-2006 eta 2008-2009 ikasturteen artean, gizonezkoena zen kopuru handiena, eta azken bi ikasturteetan berriz ere emakumeak dira nagusi. Ezgaitasun motari dagokionez, guzti-guztiak joan dira pixkanaka handitzen, eta hazkunde hori bereziki esanguratsua izan da “Beste batzuk” izendatu ditugun ezgaitasunen kasuan, azken bi urteetan ezgaitasunak dituzten ikasle guztien ia erdiak izan baitira halakoak (ikus II. eranskineko 2. taula).

¹ Ikasturte korrelatiboen datuen arteko aldea ez dator zuzenean bat ikasle berrien sarrerarekin. Aintzat hartu behar da ikasle ezinduen kopurua jakiteko aurreko ikasturtean erroldatutako ikasleen kopuruari ikasle berrien kopurua gehitu behar zaiola eta ikasketak amaitu nahiz utzi dituzten ikasleen kopurua kendu. Hortaz, ikasturteko ikasle berrien kopurua ikasturte korrelatiboen arteko guztizko ikasleen aldea baino handixeagoa da.

2.2.3. Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen bilakaera

2001etik 2011ra bitartean, ezgaitasunen bat daukaten 280 ikaslek eskuratu dute titulua UPV/EHUn. 2. grafikoa ikus dezakegun moduan, ikasketak amaitu dituzten kopurua pixkanaka handituz joan da ikasturtez ikasturte. 2002-2003 ikasturtera arte, ikasle tituludunen kopurua ez zen hamar baino handiagoa ikasturteko, baina 2004-2005 ikasturteetik aurrera egresatuen kopuruak gora egin zuen, eta 2010-2011 ikasturterako 66 izan ziren.



2. grafikoa. UPV/EHUn ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen bilakaera 2001etik 2011era.

II. eranskineko 3. taulan, UPV/EHUn ikasketak amaitu dituzten ezgaitasunak dituzten ikasleei buruzko datuak ageri dira, 2001-2002 ikasturteetik 2010-2011 ikasturtera bitartekoak, sexuaren eta ezgaitasun motaren arabera bereziak. Datu esanguratsua da ikasketak amaitu dituzten guztien % 54 emakumeak izatea. Ezgaitasun motari dagokionez, gorakada arin eta oso irregularrak ikus ditzakegu mota guztietan, motore urritasuna izan ezik; azken horretan, hazkuntza nabarmenki handiagoa izan da, eta etengabea.

Arabako Campusean, ezgaitasunen bat duten 48 egresatu izan dira, 21 titulu banatuta, eta banaketa hori nahiko erregularra da: 1-3 pertsona egresatu tituluko. Banaketa horretako salbuespenak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatura, Historiako lizentziatura, Heziketa Fisikoko irakaslea eta Gizarte Langintzako

Diplomatura izan dira, 4,5,6 eta 7 pertsona egresatu izan baitituzte, hurrenez hurren (ikusi II. eranskineko 4. taula).

Bizkaiko Campusean, ezgaitasunen bat duten 140 egresatu izan dira, 41 titulutan banatuta (ikusi II. eranskineko 5. taula). 33 titulutan, banaketa hori nahiko erregularra izan da, 1-3 egresatu izan baitira tituluko. Kopurua honen gainetik daude 6-8 ikasle egresatu hurrengo titulaziotan Arte Ederretan lizentziatua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua, Medikuntzan lizentziatua, Enpresa Zientzietan diplomatua, Gizarte Hezkuntzan diplomatua, Lan Harremanetan diplomatua eta Haur Hezkuntzako Irakaslea. Kopuru horiek baino askoz handiagoa izan dute esperientzia geletako titulazioak, Kazetaritzan lizentziatua eta Erizaintzan diplomatua, 11,17 eta 19 egresatu izan baitituzte, hurrenez hurren.

Gipuzkoako Campusean, ezgaitasunen bat duten 92 egresatu izan dira, 26 titulutan banatuta (ikusi II. eranskineko 6. taula). 16 titulutan, banaketa nahiko erregularra izan da: 1-3 pertsona egresatu tituluko. Beste 8 titulutan, kopurua zertxobait handiagoa izan da: 4-7 pertsona egresatu tituluko. Eta kopuru askoz handiagoak izan dituzte Gizarte Hezkuntzan diplomatua 10 tituludunekin eta Hezkuntza Bereziko Irakaslea 16 tituludunekin.

Laburbilduz, UPV/EHU osoan, ikasketak amaitu dituzten 280 ikasle 88 titulutan banatuta daude. Nabarmentzekoak dira Erizaintzan diplomatua 25 tituludunekin, Gizarte Hezkuntzan diplomatua eta Kazetaritzan lizentziatua 17 tituludunekin bakoitza eta Hezkuntza Bereziko Irakaslea 16 tituludunekin. Aipatzekoa da, halaber, ikasketak amaitu dituzten pertsonetatik hamahiruk gradu-ondoko ikasketak ere amaitu dituztela.

2.2.4. Ezgaitasunak dituzten ikasleen beharren bilakaera

2004-2005 eta 2009-2010 ikasturteen artean jasotako eta erregistratutako datuetatik abiatuta, ezgaitasunen bat duten ikasleek egindako 2.051 eskaerei erantzun diegula ikus dezakegu eta eskaera horiek zenbait esku-hartze arlotan banatuta daudela.

Unibertsitatean artatutako premia bereziak zazpi esku-hartze arlotan sailkatuta daude:

1. Irakaskuntza

Irakaskuntzan, honako hauekin lotutako premiak bildu ditugu, nagusiki: apunteak hartzea; lanak egitea; dokumentazioa eta curriculuma eskura izatea; irakasleek informazioa, aholkua eta orientazioa jasotzea; praktikak egiteko zentro eta enprekin koordinatzea, ezgaitasunak dituzten ikasleek halakoak egitea ahalbidetzeko eta errazteko. Azken urteetan, 601 esku-hartze gauzatu ditugu (ikus 3. taula), eta horien artean nabarmentzekoak dira irakasleei irakaskuntzan nola jardun jakiteko emandako jarraibideak eta apunteak hartzeko laguntzaren kudeaketa, alderdi horietan esku-hartzeen kopurua nabarmen handiagoa izan baita gainerakoetan baino.

Irakaskuntza	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	GUZTIRA
Apunteak hartzeko laguntza	30	32	30	28	24	36	49	229
Apunteak hartzeko eta lanak egiteko euskarriak (aparatu tifloteknikoak, bitarteko optikoak, ordenagailuak, audio-transkripzioak)	3	9	4	1	4	3	2	26
Testu irisgarriak (hizkiaren mota eta neurria, espazioak, grafikoak...)	5	7	6	1	2	5	7	33
Curriculumera sartzeko egokitzapena	8	7	1	3	7	4	3	33
Lanak egiteko denbora gehiago	0	0	1	0	2	1	2	6
Ezgaitasunari buruzko informazioa irakasleentzat	0	29	29	30	32	47	83	250
Kanpo-praktiken egokitzapena	10	5	3	2	1	0	3	24
Guztira	56	89	74	65	72	96	149	601

3. taula. Irakaskuntzaren arloan gauzaturako esku-hartze guztien banaketa 2004tik 2011era bitartean.

1. Azterketak

Azterketei dagokienez, ezgaitasunen bat duten ikasleek azterketak gainerako ikasleen antzeko baldintzetan egin ahal izateko dauzkaten premiei erantzun diegu. 2004tik 2011ra bitartean, 797 esku-hartze gauzatu ditugu (ikus 4. taula). Alde horretatik, aztertutako sei ikasturteetan esku-hartzeen kopurua nabarmenki eta etengabe handitu dela ikus dezakegu. Esku-hartze ohikoenak proba akademikoa egiteko denbora gehiago ematea, laguntzeko pertsonaren bat bertan izatea eta altzariak egokitzea izan dira.

Azterketak	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	GUZTIRA
Denbora gehiago	15	17	36	32	44	61	102	307
Testu irisgarriak (hizkiaren mota eta neurria, espazioak, grafikoak...)	5	7	4	3	3	13	21	56
Baliabide teknikoak (software egokitua, aparatu tifloteknikoak, bitarteko optikoak, ordenagailua)	6	7	5	7	7	6	4	42
Altzarien egokitzapena	-	9	18	16	13	14	25	95
Azterketa egiteko giza laguntza (ZHI edo hezkuntza laguntzailea)	-	6	17	22	24	15	16	100
Sintomen berri ematea	12	8	1	3	10	18	29	81
Transkripzioa	-	-	-	-	-	-	6	6
Gela irisgarria	-	-	9	19	17	17	30	92
Aparteko gela	-	-	-	-	2	5	8	15
Hasierako edota amaierako irakurketa	-	-	-	-	-	-	3	3
Eserleku erreserbatua	-	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	38	54	90	102	120	149	244	797

4. taula. Azterketen arloan gauzaturako esku-hartze guztien banaketa 2004tik 2011era bitartean.

2. Orientazioa

Orientazioaren arloan artatutako premiek informazioa, aholkua eta orientazioa eskuratzearekin dute zerikusia. Guztira, 677 esku-hartze gauzatu ditugu (ikusi 5. taula), eta horien artean nabarmentzekoak dira ikasle berrientzako orientazioa, lanbide orientazioa eta ikasketen plangintza.

Orientazioa	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	GUZTIRA
Ikasle berriei orientazioa	0	41	18	35	67	100	91	352
Ikaskideei informazioa	0	0	5	0	1	0	1	7
Ikasketen planifikazioa	5	9	16	9	12	5	4	60
Lanbide-orientazioa	28	28	38	35	30	35	66	255
Mugikortasun-programetako ikasleentzako orientazioa	0	0	0	0	0	1	2	3
Guztira	33	78	72	79	110	141	164	677

5. taula. Orientazioaren arloan gauzaturako esku-hartze guztien banaketa 2004tik 2011era bitartean.

3. Beste batzuk

Arlo honetan, beste premia batzuei erantzun diegu, hala nola elikadurako intolerantziei eta alergiei begirako informazioari eta aholkularitzari. Aldi honetan, beste menu mota batzuei buruzko 64 esku-hartze gauzatu ditugu (ikusi 6. taula).

Beste batzuk	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	GUZTIRA
Menu berezia	10	8	8	8	8	11	11	64
Guztira	10	8	8	8	8	11	11	64

6. taula. Beste esku-hartze mota batzuen arloan gauzaturako esku-hartze guztien banaketa 2004tik 20101ra bitartean.

4. Giza baliabideak

Giza baliabideen arloan, 73 eskaerei erantzun diegu; horietatik 46k, hezkuntza laguntzaileak eskatu dituzte, eta 27k, zeinu hizkuntzako interpreteak. Era honetan, mendekotasun handia duten ezgaitasunak dituen ikasleei erantzun ahal izan diegu (ikusi 7. taula).

Giza baliabideak	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	GUZTIRA
Hezkuntza laguntzaile teknikaria (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak)	6	6	7	8	6	5	8	46
Zeinu hizkuntzako Interpretea interpretea (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak)	1	2	3	5	7	4	5	27
Guztira	7	8	10	13	13	9	13	73

7. taula. Giza baliabideen arloan gauzatutako esku-hartze guztien banaketa 2004tik 2011era bitartean.

5. Baliabide teknikoak

Baliabide teknikoen arloan, ikasketak berdintasuneko baldintzetan egin ahal izateko behar dituzten baliabide teknikoak (software egokitua, FM igorgailuak...) erraztu dizkiegu ezgaitasunak dituzten ikasleei. Urte hauetan, 21 esku-hartze gauzatu ditugu (ikusi 8. taula).

Baliabide teknikoak	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	GUZTIRA
Laguntza teknikoak: software egokitua (Zoom-text, Jaws...), FM igorgailua	3	4	3	2	3	1	5	21
Guztira	3	4	3	2	3	1	5	21

8. taula. Baliabide teknikoen arloan gauzatutako esku-hartze guztien banaketa 2004tik 2011era bitartean.

6. Irisgarritasuna

2004tik 2011ra bitartean, 783 esku-hartze gauzatu ditugu (ikusi 9. taula). Alde horretatik, aztertutako sei ikasturteetan esku-hartzeen kopurua nabarmenki eta etengabe handitu dela ikus dezakegu. Esku-hartze nabarmenenak hauek izan dira: garraio egokituko bekari buruzko aholkularitza eta guneak nahiz altzariak (igogailuak, komunak, etab.) egokitzeko eskaerak.

Irisgarritasuna	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	GUZTTIRA
Motore urritasunak dituzten ikasleentzako garraio-beka	25	20	42	39	33	29	36	224
Espazioen egokitzapena (sarbideak, ikasgelak, korridoreak, komunak, igogailuak...)	18	28	42	36	66	58	74	322
Altzarien egokitzapena	13	16	18	12	30	20	22	131
Aparkaleku erreserbatua	6	5	4	3	5	8	6	37
Egoitza egokituak	1	1	0	1	3	4	4	14
Orientazio kokapenerako laguntza	1	1	0	1	0	2	4	9
Ebakuazio-plan berezia	-	0	0	0	0	2	44	46
Guzttira	64	71	106	92	137	123	190	783

9. taula. Irisgarritasunaren arloan gauzatuta esku-hartze guztien banaketa 2004tik 2011era bitartean.

2.3. EGOERAREN AMIA AZTERKETA

UPV/EHUn ezgaitasunak dituzten ikasleen premia bereziei emandako erantzunen AMIA azterketa batek indarguneen, ahulguneen, mehatxuen eta aukeren mapa bat egiteko aukera eskaintzen digu (ikusi 10. taula). Indarguneen artean, sisteman zailtasun handiagoak dauzkaten ikasleen hezkuntza arloko integrazioan eta inklusioan unibertsitateari aurrera egiteko aukera eman dioten alderdi positiboak nabarmen ditzakegu.

Ahulguneek gizarteak eta sistemak dituen oztopoei egiten die erreferentzia eta honek ez du errazten unibertsitateko jardueretan inklusio kontzeptuaren aurreratzea lortzea.

AHULGUNEAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago ikasleei eskainitako zerbitzuei buruzko arategi garbirik. - Ez dago egokitzapenei buruzko arategi akademikorik. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko teknikarien eta irakasleen eskumenak eta betebeharrak. - Irakasleei zuzendutako formakuntza eskasa, curriculum eta irakaskuntza-metodologia inklusiboen diseinuan. - Ikasteko materialak eta edukiak ez dira erabilerrazak. - UPV/EHUren webgunearen informazioa ez dago oso eskuragarri. - Azpiegiturek hutsuneak dauzkate irisgarritasun arkitektonikoari begira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako zerbitzuko lantaldea egonkorra da, eskarmentuduna eta arreta deszentralizatu eskaintzen duena. - Jarduteko programak eta protokoloak ongi garatuta daude. - Zerbitzuaren kudeaketa GAUR aplikazioan sartuta dago. - Zerbitzuak Kudeatzeko Gidaliburua egin da, Irisgarritasun Orokorreko UNE 170001 Arauan oinarritutako kudeaketa-sistema bat ezartzeko. - Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako zerbitzuak koordinazio egonkorra dauka ikastegiekin eta unibertsitateko zerbitzuekin, baita Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin eta orientazioko nahiz laguntzako zerbitzuekin ere. - Beste unibertsitate batzuekin lankidetzan aritzen da, Ikasleen Gaietarako Unibertsitate Sareak aniztasunari erantzuteko duen arloaren bidez eta Unibertsitatean Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Laguntzako Zerbitzuen Sarearen bidez. - Zerbitzuaren erabiltzaileak pozik daude, gogobetetze-inkesten arabera.
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> - Unibertsitate publikoei baliabide ekonomikoak murriztuko dizkiete. Aurrekontuen murrizketak eragina izan dezake baliabide teknikoan nahiz giza baliabideen hornikuntzan eta arkitekturako nahiz komunikazioko irisgarritasuna hobetzeko lanetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezgaitasunaren arloko legeak gehiago gara daitezke. - Gizartea gehiago sentibera daiteke ezintasunari begira. - Irakaskuntzako metodologia berriak erabil daitezke, ikasleen beharrei hobeto egokitzen zaien irakaskuntza errazteko.

10. taula. UPV/EHU ezintasunen bat duten ikasleen premia bereziei emandako erantzunaren AMIA matrizea.

Orain arte egindako gogoeta abiapuntutzat hartuta, jarraian plan berriaren helburuak aurkeztuko ditugu, lau ardatz estrategikoetan zehazten direnak.

3 UPV/EHUko INKLUSIO II. PLANAREN HELBURU OROKORRAK

Plan honen helburu nagusia da ezgaitasunak dituzten ikasleen aukera-berdintasuna lortzea, eguneroko errealitatean eta unibertsitatearen arlo guztietan. Helburu nagusi hori lortzeko, honako helburu hauek finkatu dira:

- Unibertsitate-aurreko ezgaitasunak dituzten ikasleak unibertsitateko ikasketak egiteko sarbidea erraztea.
- Ezgaitasunen bat duen pertsonak unibertsitateko kide sentitzea eta parte-hartzea bermatzea.
- Unibertsitatean ezgaitasunak dituzten ikasleen premiei erantzutea, subjektu bakoitzaren ezaugarriak banan-banan kontuan hartuta.
- Ezgaitasunak dituzten eta premia bereziak dituzten ikasleei aholkularitza akademikoa eskaintzea, haien eskubideak, betebeharrak eta unibertsitatean dauden baliabide espezifikoei buruzko informazioa emanez.
- Unibertsitateko kideei informazioa, prestakuntza eta laguntza ematea, ezgaitasunak dituzten pertsonak integratzeko arategiak eta politikak aplikatzeari buruz.
- Ikasketa-plan berrien ezarpenak ekarritako unibertsitate eta lege-esparru berrira ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta egokitzea.
- UPV/EHUko zerbitzuak, unibertsitate-ikasketak, espazioak eta informazioa eskuragarri daudela bermatzea.
- Unibertsitateko estamentuekin lankidetzan jardutea, baita kanpoko nahiz barruko erakunde eta organismoekin ere, premien arreta hobetzeko eta denontzat izango den unibertsitatea eraikitzeko.
- Ezgaitasunak dituzten ikasleak lan-munduan txertatzen laguntzea, eta, kontratazioan, ezgaitasunak dituzten pertsonen enplegua erreserbatzeko arategien xedapenak kontuan hartzea.

4 UPV/EHUko INKLUSIO II. PLANAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK

UPV/EHUko ezgaitasunak dituzten ikasleen premiei erantzuteko, lau ardatz estrategiko proposatzen dira. UPV/EHUK, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bidez, aurreikusitako jarduerak garatuko ditu, eta koordinatuta jardungo du unibertsitateko ikastegi eta zerbitzuekin eta kanpoko erakunde publiko nahiz pribatuekin. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da zerbitzuaren koordinazioa geure unibertsitateko fakultate eta eskolekin. Ikastegi bakoitzean, zuzendaritza-taldeko kide batek (ikasleen arduraduna) premia bereziak dituzten ikasleen ardura hartuko du bere gain.

Lau ardatz estrategiko hauek, alde batetik, azken hamar urteetan pilatutako esperientziaren emaitza dira, eta, bestetik, arreta jasotzen duten pertsonen eskaeren errealitateari egokitzeko premiaren ondorioak. UPV/EHUK ezgaitasunak dituzten pertsonen inklusioa bultzatuko du, ardatz estrategiko eta esku-hartze programa hauen bidez:

- **Informazioa, aholkularitza eta orientazioa.**

- Unibertsitate sarrerako ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta programa
- Ezgaitasunak dituzten sartu berrien ikasleen harrera programa
- Ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta unibertsitateko egonaldi programa
- Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen laneratze programa

- **Aukera parekatzeak**

- Giza baliabideen kudeaketa programa
- Baliabide teknikoaren kudeaketa programa

- **Prestakuntza eta sentsibilizazioa**

- Prestakuntza programa
- Sentsibilizazioa programa

- **Irigarritasun unibertsala**

- Irigarritasunezko eskaeren arreta programa
- Komunikaziorako irigarritasuna eta irigarritasun arkitektoniko programa

4.1. INFORMAZIOA, AHOLKULARITZA ETA ORIENTAZIOA

Ardatz honetan jasotako jardueren bidez, premia bereziak dituzten ikasleek, UPV/EHU sartzean, unibertsitateko egonaldirako beharrezkoa den informazioa eta laguntza jasoko dute. Ardatz hau honako programa hauetan banatzen da:

4.1.1. Unibertsitate sarrerako ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta programa

Unibertsitatera sartzeko prozesu eta erreferenteekin komunikazio-bide desberdinak finkatu behar dira, unibertsitate-aurreko ikaslearen jatorria kontuan hartuta; hau da: batxilergoa, prestakuntza-zikloa, unibertsitateko tituluduna, eta 25 eta 45 urtetik gorakoa.

Programa honek ezgaitasunak dituzten ikasleen premia bereziei erantzuten die, UPV/EHUra sartzeko probetan.

Helburu espezifikoak

- Unibertsitate-aurreko ezgaitasunak dituzten ikasleen erreferentziako zentroekin komunikazio-bideak finkatzea, Unibertsitateko sarbideari eta sartzeko probei buruzko orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea.
- Unibertsitatera sartzeko probak egiteko, unibertsitate-aurreko ikasleen premiak ebaluatzea eta beharrezkoak izango diren baliabideak kudeatzea.

Jarduerak

- Sartzeko probetan egokitzapenak egiteko eskaeren prozedurari buruzko informazioa ematea Berritzeguneei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Zentroei eta Helduentzako Irakaskuntza Zentroei.
- Berritzeguneei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Zentroek eta Helduentzako Irakaskuntza Zentroek eginiko kontsultak erantzutea.
- Unibertsitate-aurreko ezgaitasunak dituzten ikasleen egokitzapen-eskaerak kudeatzea, unibertsitatera sartzeko probetan.
- Sartzeko probetako epaimahaikideei ezgaitasunak dituzten ikasleen arretarako aholkularitza ematea.
- Ezgaitasunak dituzten ikasleek egin nahi dituzten tituluei buruzko informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematea.

Adierazlea

- Sartzeko proben kudeaketan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Zentroyen arduradunen eta epaimahaikideen gogobetetze mailari eustea.

4.1.2. Ezgaitasunak dituzten sartu berrien ikasleen harrera programa

Unibertsitate-aurreko ikasleen unibertsitaterako sarbidea matrikula egitean amaitzen da. Une horretatik aurrera, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak bere gain hartzen du ezgaitasuna duten ikasle guztiek UPV/EHU ikasketak egiteko behar dituzten baliabide guztiak izango dituztela bermatzeko ardura. Horretarako, ikasturtea hasi aurretik, zerbitzua harremanetan jarriko da ikasle berriekin.

Helburu espezifikoak

- Ezgaitasunak dituzten ikasle berriei jakinaraztea unibertsitateko bizi-tza errazteko zer zerbitzu eskaintzen zaizkien.
- Ezgaitasuna duten ikasleen unibertsitateko erroldan sartzeko aukera ematea.

Jarduerak

- Ezgaitasunak dituzten ikasle berriekin harremanetan jartzea, eskainitako zerbitzuei eta erroldan sartzeko prozedurari buruzko informazioa emateko.
- Informazioa ematea honako alderdi hauei buruz: eskubideak, arautegiak, ikasketen plangintza, baliabide teknikoak eta giza baliabideak, eta aurrez aurreko irakaskuntzaren, praktiken eta azterketen egokitzapena.

Adierazlea

- Zerbitzua ikasle berriekin harremanetan jartzea 45 egun baino gutxiagoko epean, matrikula egiten den datatik.

4.1.3. Ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta unibertsitateko egonaldi programa

Ikasle berriei harrera egin ondoren, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak ikasleen jarraipena egingo du, UPV/EHU dauden bitartean; izan ere, horien beharrak ikasturtetik ikasturtera alda daitezke.

Ikasketak hastean, unibertsitateko testuingurua berria da ikaslearentzat, eta ez ditu ezagutzen, besteak beste, horren antolakuntza, ingurua, irakasgaiak edo erakusteko moduak. Hortaz, hasierako premiak aldatu edo desagertu daitezke, eta premia berriak sor daitezke. Horrez gain, tituluaren, ingurune fisikoaren eta bien muga arabera, bai eta ikaslearen inguruabar pertsonalean gerta daitezkeen aldaketen arabera ere, ikasketen hasieran ez zeuden premiak ager daitezke; hortaz, premiak eguneratu egin beharko dira.

Era berean, ikasturte bakoitzean, ikasleen gogobetetze mailari jarraipena egin beharko zaio, jasotako laguntzari eta, oro har, unibertsitateko egonaldiari dagokienez.

Helburu espezifikoak

- Ezgaitasunak dituzten ikasleak Unibertsitatean dauden bitartean izango dituzten premiak ebaluatzea eta horiek asetzeko baliabideak kudeatzea.
- Ezgaitasunak dituzten ikasleei orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea beren eskubideei, unibertsitateak eskainitako zerbitzuei eta ikasketen plangintzari buruz.
- Unibertsitateko ikastegiei orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea, ezgaitasunak dituzten ikasleen premiei buruz eta, batik bat, curriculumeko egokitzapenak egiteari buruz.
- Ezgaitasunak dituzten ikasleen gogobetetze maila ebaluatzea, Zerbitzuak emandako laguntzari dagokionez.

Jarduerak

- Ezgaitasunak dituzten ikasleen datuak urtero eguneratzea, ikasturte bakoitzean titulua eskuratu duten eta ikasketak utzi dituzten ikasleak kontuan hartuta.
- Ikastegiei ezgaitasunak dituzten ikasleek premien berri ematea, eta horiei erantzuteko aholkularitza eta laguntza eskaintzea.
- Irakaskuntzako jarduera-ildoak zehaztea, irakasleei banatzea, eta curriculumean egin beharreko egokitzapenak egiteko aholkularitza ematea.
- Batzorde baten sorrera bultzatzea, ikasketa-plan berriek (GMHEE) premia bereziak dituzten ikasleengan nolako eragina izan duten aztertze aldera. Orain arte eginiko egokitzapenen erabilgarritasuna berrikusi, eta irakaskuntza-metodologia inklusiboak sartu behar ote diren aztertuko da.

Adierazlea

- Erroldatutako ikasleen gogobetetze mailari eustea, zerbitzuaren esku-hartzeari dagokionez.

4.1.4. Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen laneratze programa

Ezgaitasunak dituen pertsonak lan arloan sartzeari lagungarria da, gizarteratzea lortzeari begira. Unibertsitateak lankidetzan dihardu fundazio eta erakundeekin ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunei lana bilatzeko; izan ere, gainerako ikasleek baino zailtasun handiagoak dituzte lan-merkatuan sartzeko.

Helburu espezifikoak

- Ezgaitasunak dituzten ikasleak lan-munduan sartzeko laguntza ematea.
- Lana bilatzeari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Ezgaitasuna duten pertsonak lan-munduan sartzearen aldeko lanean diharduten erakundeekin harremanetan jartzea.

Jarduerak

- Ikasle tituludunen datuak eguneratzea, urtero.
- Ezgaitasunak dituen ikasleei informazioa ematea, lana bilatzeko laguntza-iturriei buruz.
- Enpresek eta fundazioek ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunentzat bidalitako lan-eskaintzetan bitartekari izatea.
- Lan-munduan sartzearen aldeko lanean diharduten fundazio, elkarte eta enpresekiko lankidetzak sendotzea.

Adierazlea

- Zerbitzuan jasotako lan-eskaintzak ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunei bidaltzen zaizkiela bermatzea, astebete baino gutxiagoko epean.

4.2. AUKERAK PAREKATZEA

Aukera-berdintasuna esaten zaio ezgaitasunek eragindako zuzeneko nahiz zeharkako bazterkeria ez gertatzeari ez ikasketen sarbidean, ez zerbitzuen harreran, ezta unibertsitateko maila guztietan parte hartzeko aukeran ere. Horrelako desabantailak saihesteko edo orekatzeko neurri positiboak hartzen dira. Ardatz horren bidez, unibertsitateak kasuan kasuko baliabide mota zehatzeko neurriak hartu behar ditu, ikasleek behar dituzten baliabideak eskura ditzaten. Ardatz hori honako programa hauetan banatzen da:

4.2.1. Giza baliabideen kudeaketa programa

Unibertsitateko ikasle batzuek, beren ezgaitasunen arabera, hirugarren pertsona baten laguntza behar izaten dute ikasketak egiteko.

UPV/EHUK bi profesional mota ditu, jarduera akademikoetan laguntzeko:

- Zeinuen Hizkuntza interpreteak, komunikatzeko hizkuntza hori erabiltzen duten ikasle gorrei laguntzeko.
- Hezkuntza Laguntzako teknikariak, laguntza iraunkorra emateko.

Helburu espezifikoak

- Laguntza pertsonala ematea, ezgaitasuna duten ikasleei jarduera akademikoak eskuratzen eta horietan parte hartzen laguntzeko.

Jarduerak

- Baliabide pertsonalaren beharra ebaluatzea banaka, eta kasu bakoitzari baliabide egokia esleitzea.
- Baliabide pertsonalaren lana antolatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea, horren harrera eta jarraipena eginez.
- Ezgaitasunak dituzten ikasleei laguntzeko programan, parekoen arteko laguntza-taldeak antolatzeko koordinatzea.

Adierazlea

- Uztaila amaitu aurretik eginiko eskaerei ikasturte hasierako baliabide pertsonalen hornidura bermatzea.

4.2.2. Baliabide teknikoaren kudeaketa programa

UPV/EHUK beharrezkoak diren neurriak finkatu behar ditu, ikasle ezinduei curriculumean sartzen lagunduko dieten baliabide teknikoak emateko. Hau da, mugimenduari edo zentzumenei loturiko zailtasunak dituzten ikasleek gainerako ikasleek aukera berberak izatea ahalbidetu behar dugu. Hortaz, beharrezkoak diren baliabide teknologikoak jarriko ditugu ikasle horien esku, unibertsitateko ikasketei etekin handiagoa atera diezaieten.

Helburu espezifikoak

- Ezgaitasunak dituen ikasleari baliabide teknikoak ematea, curriculumera sartzeko aukera-berdintasuna izan dezaten.
- Erabiltzailearen gaitasunak bultzatzea, laguntza teknikoaren erabileraren bidez.

Jarduerak

- Ezgaitasunak dituen ikasleek eskatzen edo behar dituzten laguntzak hautematea eta ebaluatzea, beren ezaugarrien arabera.
- Ezgaitasunak dituen pertsonen elkarteekin harremanetan egotea, gaur egungo baliabide teknologikoak eta elkarte horiek eskura dituzten laguntzak ezagutzeko.
- Ezgaitasunak dituen pertsonen lotutako erakundeekin eta elkarteekin koordinatzea, beharrezkoak diren bitartekoak eskuratzeko.
- Baliabideak eskuratzeko, ikastegiekin eta zerbitzuekin koordinatuta.

Adierazlea

- Uztaila amaitu aurretik eginiko eskaerei ikasturte hasierarako baliabide teknikoaren hornidura bermatzea.

4.3. PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Unibertsitateko kideak prestatzea eta sentiberatzea funtsezkoa da, ikasle ezinduek erabat integratzeko. UPV/EHUK ikasleek izan ditzaketan ezintasunen ezaugarriak, zailtasunak, ahalmenak eta eskubideak ezagutzera eman behar ditu, ezagutza areagotzeko eta gizarte-hesiak ezabatzen laguntzeko.

Horretarako, UPV/EHUK etengabe egingo ditu sentiberatzeko eta prestatzeko ekintzak, hala orokorrak, nola unibertsitateko talde jakinei bideratutakoak. Ardatz hau honako programa hauetan banatzen da:

4.3.1. Sentsibilizazio programa

Aniztasuna normalizatzeko, unibertsitateko kideek nahitaez ezagutu behar dituzte pertsona anitzen arteko komunikazioa eta bizikidetzaren errazten dituzten arauak. Hartara, UPV/EHUK arau horiek ezagutaraziko ditu, eta sentiberatzea landuko du, unibertsitateko kideek arau horiek ezagutu, onartu eta erabil ditzaten.

Helburu espezifikoak

- Ezgaitasunei buruzko informazioa ematea.
- Unibertsitateko kideei arau praktikoak ezagutaraztea ezgaitasunak dituzten pertsonen bizikidetzaren errazteko, eta horiek erabiltzeko eta errespetatzeko sentsibilizazioa lantzea.
- Aniztasunari buruz sentiberatzea, gizartearen balio bat den neurrian.

- Unibertsitateko kideak sentiberatzea, ezgaitasuna duten pertsonen hezkuntza- eta gizarte-inklusion lagundu eta parte har dezaten.

Jarduerak

- Ezgaitasunei buruzko informazioa sartzeta, UPV/EHUko ikasleentzako materialetan.
- Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren webgunea eguneratuta edukitzea.
- Unibertsitateko kideak informatzeko materialak sortzea.
- Unibertsitateko kideak sentiberatzeko jarduerak antolatzea, elkarteekin lankidetzan.

Adierazlea

- Erabiltzaileei eginiko inkestetan puntuazioa hobetzea, zerbitzuaren aurkezpena hautemateari dagokionez: zerbitzua ezagutzea, zerbitzura sartzeta eta zerbitzuaren materiala.

4.3.2. Prestakuntza programa

Unibertsitateko kideek ezagutu egin behar dituzte ezgaitasunak dituzten pertsonen ezaugarriak, zailtasunak, ahalmenak, premiak eta eskubideak. Garrantzitsua da irakasleek ezagutzak eta tresnak edukitzea metodologia inklusiboak erabiltzeko, bai eta administrazio eta zerbitzuetako langileek prestakuntza espezifikoak jasotzea ere, pertsona ezinduei arreta eskaintzeko. Horregatik, ezinbestekoa da programa hau sartzeta UPV/EHUren Prestakuntza Planean.

Helburu espezifikoak

- Unibertsitateko kide guztientzako prestakuntza ekintzak bultzatzea, ezgaitasunak dituen ikasleen errealitatea ezagutzeko eta talde horrenganako jarrera positiboak eta enpatia bultzatzeko.
- Irakasleak prestatzeko ekintza espezifikoak bultzatzea, irakaskuntza-metodologia inklusiboak erabiltzea ahalbidetuko dieten tresnak eskura ditzaten.
- Estatuko unibertsitateetan, ezgaitasunak dituzten pertsonen arretarako dauden programen eta unitateen sarean parte hartzea eta laguntzea.

Jarduerak

- Prestakuntza-jarduera espezifikoak antolatzea irakasleentzat, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin eta Irakaskuntza Kalitate eta Berrikuntzarako Errektoreordetzarekin lankidetzan.
- Ezgaitasunei buruzko prestakuntza-ekintzak antolatzea unibertsitateko kide guztientzat.
- Unibertsitateko kideak prestatzeko materialak sortzea.
- Elkarteekin lankidetzan jardutea, prestakuntza-ikastaroak diseinatzeko.

Adierazlea

- Jendaurrean lanean diharduen AZPren % 5ek egitea urtero zerbitzuak bultzatutako sentsibilizazio prestakuntza-ikastaroak.
- Ikasturte bakoitzean irakasleentzako prestakuntza espezifikoko ikastaro bat eskaintzea, gutxienez.

4.4. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Arkitektura-oztopoek eta komunikazio oztopoak, oraindik ere, asko mugatzen dute ezgaitasunak dituen pertsonen mugikortasuna eta zerbitzuak eskuratzeko aukera. UPV/EHUK lan handia egin du horiek ezabatzeko, baina oraindik asko dago egiteko.

Arazo hori maiz gertatzen da, eta jasaten duena bakarrik ohartzen da horretaz. Beraz, ezinbestekoa da edozein eratako ezgaitasuna duten unibertsitateko kideekin batera lana egitea, unibertsitateko maila guztietan.

UPV/EHUK hiru campusetako Irisgarritasun Plana egin du, indarrean dagoen estatu eta autonomiako legediari eutsiz eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko UNE 170001 arauaren irizpideen arabera. Dagoeneko amaituta dagoen lehen fasean, unibertsitateko irisgarritasunaren egoera ebaluatu, eta horren diagnostikoa egin da, hiru campusetako unibertsitate-ikastegietan dauden oztopoak identifikatuz eta aztertuz.

Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren eragozpenei dagokienez, UPV/EHU informazioaren eskuragarritasuna hobetzeko jarduerak ari da egiten, 2011-2014 Programa Kontratuen esparruan. Ardatz hau honako programa hauetan banatzen da:

4.4.1. Irisgarritasunezko eskaeren arreta programa

Motore urritasuna duten pertsonak, komunikatzeko zailtasunak dituztenak eta bestelako muga psikikoak nahiz sentsorialak dituzten pertsonak inguru irisgarri bat behar dute. Programa honen helburua talde horren beharrei erantzutea da oztopo fisiko, elektronikoa edo komunikazio oztopoak sortzen dituzten egoeren aurrean.

Premia horiei erantzuteko, diziplinarteko profesionalen talde batek esku hartu behar du, ikuspegi osoa bermatze aldera; izan ere, jarduerak planteatzeko, ikuspegi bakar bat baino, hiru maila bateratu behar dira: araudi arloa, arlo teknikoa eta gizarte arloa.

Programa hau lankidetzan egingo da UPV/EHUko Azpiegitura eta kontratazioetarako Gerenteordetza eta campusetako Gerenteordetzarekin, unibertsitate-ikastegiekin eta ezgaitasunak dituzten pertsonen elkarteekin.

Helburu espezifikoak

- Organo eskudunei dauden oztopoen berri ematea.
- Etengabe oztopoak kentzea.
- Oztopoen egoeraren jarraipena egitea.

Jarduerak

- Obra edo hobekuntza behar duten eskaerak jasotzea, bideratzea eta horien jarraipena egitea, horretarako campuseko gerenteordetzak eginiko jarduera-protokoloaren arabera.
- Unibertsitateko garraiobideen irisgarritasuna erraztea.
- Unibertsitate-ikastegietan larrialdietarako ezgaitasunak dituzten ikasleentzat jarduera-protokolo espezifiko bat sortzea UPV/EHUko Prebentzioaren kudeaketa sistemaren prozedurak 6.eranskina aintzat hartuta.

Adierazlea

- Irtenbidea eman zaie premien portzentajea ezgaitasunak dituzten ikasleen berehalako premien arabera.

4.4.2. Komunikaziorako irisgarritasuna eta irisgarritasun arkitektoniko programa

Programa honen helburua UPV/EHUren Irisgarritasun Planean aurreikusitako ekintzetan laguntzea da. Hartara, eraikitako ingurunearen erabilera segurua, independentea eta ez-baztertzaila bermatuko dugu, Irisgarritasun Planak jasotako hobekuntza-planak diseinatu eta arian-arian garatuz. Ingurune fisikoaren irisgarritasunez gainera, kontuan hartu behar dugu informazioaren, elektronikaren eta unibertsitateko web atariaren eskuragarritasuna.

Helburu espezifikoak

- UPV/EHUko espazioak eta informazioa eskura izateko irisgarritasun unibertsala bermatzea, irisgarritasunaren arloan hobekuntza-ekintzak egiteko esparrua izango den irisgarritasun-plan baten bidez.

Jarduerak

- Ezgaitasunak dituzten pertsonen Irisgarritasun Planaren hobekuntza-ekintzei buruzko informazioa ematea.
- Campusetako gerenteordetzekin lankidetzan jardutea, Planean jasotako irisgarritasun-ekintzen lehentasunak finkatzeko, ezgaitasunak dituzten ikasleen egiazko premietan oinarrituta.
- UPV/EHUen eginiko jardueren jarraipena egitea, informazioaren erabilerraztasunaren esparruan.
- Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetzarekin lankidetzan jardutea informazioaren erabilerraztasunari lotutako ekintzak lehenesteko, ezgaitasunak dituzten egiazko premietan oinarrituta.

Adierazlea

- Irisgarritasun hobekuntza jardueren bideratuta dagoen aurrekontuaren betetze portzentajea.

Ardatzak	Programak	Helburuak	Adierazleak
Informazio, Aholkularitza eta Orientazioa	Unibertsitate sarrerako ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta	<p>Unibertsitate-aurreko ezgaitasunak dituzten ikasleen erreferentziako zentroekin komunikazio-bideak finkatzea, Unibertsitateko sarbideari eta sartzeko probei buruzko orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea.</p> <p>Unibertsitate sartzeko probak egiteko, unibertsitate-aurreko ikasleen premiak ebaluatzea eta beharrezkoak izango diren baliabideak kudeatzea</p>	Sartzeko proben kudeaketan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Zentroyen arduradunen eta epaimahaikideen gogobetetze mailari eustea
	Ezgaitasunak dituzten sartu berrien ikasleen harrera	<p>Ezgaitasunak dituzten ikasle berriei jakinaraztea unibertsitateko bizitza errazteko zer zerbitzu eskaintzen zaizkien.</p> <p>Ezgaitasuna duten ikasleen unibertsitateko erroldan sartzeko aukera ematea</p>	Zerbitzua ikasle berriei harremanetan jartzea 45 egun baino gutxiagoko epean, matrikula egiten den datatik
	Ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta unibertsitateko egonaldian	<p>Ezgaitasunak dituzten ikasleak Unibertsitatean dauden bitartean izango dituzten premiak ebaluatzea eta horiek asetzeko baliabideak kudeatzea.</p> <p>Ezgaitasunak dituzten ikasleei orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea beren eskubideei, unibertsitateko eskaintako zerbitzuei eta ikasketen plangintzari buruz.</p> <p>Unibertsitateko ikastegiari orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea, ezgaitasunak dituzten ikasleen premiei buruz eta, batik bat, curriculumeko egokitzapenak egiteari buruz.</p> <p>Ezgaitasunak dituzten ikasleen gogobetetze maila ebaluatzea, Zerbitzuak emandako laguntzari dagokionez</p>	Erroldatutako ikasleen gogobetetze mailari eustea, zerbitzuaren esku-hartzeari dagokionez
	Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen laneratzea	<p>Ezgaitasunak dituzten ikasleak lan-munduan sartzeko laguntza ematea.</p> <p>Lana bilatzeari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.</p> <p>Ezgaitasuna duten pertsonak lan-munduan sartzearen aldeko lanean diharduten erakundeekin harremanetan jartzea</p>	Zerbitzuan jasotako lan-eskaintzak ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunei bidaltzen zaizkiela bermatzea, astebete baino gutxiagoko epean
Aukera Parekatzeak	Giza baliabideen kudeaketa	Laguntza pertsonala ematea, ezgaitasuna duten ikasleei jarduera akademikoak eskuratzen eta horietan parte hartzen laguntzeko	Uztaila amaitu aurretik eginiko eskaerei ikasturte hasierako baliabide pertsonalen hornidura bermatzea
	Baliabide teknikoaren kudeaketa	<p>Ezgaitasunak dituen ikasleari baliabide teknikoak ematea, curriculumera sartzeko aukera-berdintasuna izan dezaten.</p> <p>Erabiltzailearen gaitasunak bultzatzea, laguntza teknikoaren erabileraren bidez</p>	Uztaila amaitu aurretik eginiko eskaerei ikasturte hasierako baliabide teknikoaren hornidura bermatzea

Ardatzak	Programak	Helburuak	Adierazleak
Prestakuntza eta Sentsibilizazioa	Sentsibilizazioa	<p>Ezgaitasunei buruzko informazioa ematea.</p> <p>Unibertsitateko kideei arau praktikoak ezagutaraztea ezgaitasunak dituzten pertsonetikiko bizikidetzaren errazteko, eta horiek erabiltzeko eta errespetatzeko sentsibilizazioa lantzea.</p> <p>Aniztasunari buruz sentiberatzea, gizartearen balio bat den neurrian.</p> <p>Unibertsitateko kideak sentiberatzea, ezgaitasuna duten pertsonen hezkuntza- eta gizarte-inklusiokoan lagundu eta parte har dezaten</p>	<p>Erabiltzaileei eginko inkestetan puntuazioa hobetzea, zerbitzuaren aurkezpena hautemateari dagokionez: zerbitzua ezagutzea, zerbitzura sartzea eta zerbitzuaren materiala</p>
	Prestakuntza	<p>Unibertsitateko kide guztientzako prestakuntza ekintzak bultzatzea, ezgaitasunak dituen ikasleen errealitatea ezagutzeko eta talde horrenganako jarrera positiboak eta enpatia bultzatzeko.</p> <p>Irakasleak prestatzeko ekintza espezifikoak bultzatzea, irakaskuntza-metodologia inklusiboak erabiltzea ahalbidetuko dieten tresnak eskura ditzaten.</p> <p>Estatuko unibertsitateetan, ezgaitasunak dituzten pertsonen arretarako dauden programen eta unitateen sarean parte hartzea eta laguntzea.</p>	<p>Jendaurrean lanean diharduen AZPren % 5ek egitea urtero zerbitzuak bultzatutako sentsibilizazio prestakuntza-ikastaroak</p> <p>Ikasturte bakoitzean irakasleentzako prestakuntza espezifiko ikastaro bat eskaintzea, gutxienez</p>
Irsgarritasun Unibertsala	Irsgarritasuneko eskaeren arreta	<p>Organo eskudunei dauden oztopoen berri ematea.</p> <p>Etengabe oztopoak kentzea.</p> <p>Oztopoen egoeraren jarraipena egitea.</p>	<p>Irtenbidea eman zaie premien portzentajea ezgaitasunak dituzten ikasleen berehalako premien arabera.</p>
	Komunikaziorako irsgarritasuna eta irsgarritasun arkitektonikoa	<p>UPV/EHUko espazioak eta informazioa eskura izateko irsgarritasun unibertsala bermatzea, irsgarritasunaren arloan hobekuntza-ekintzak egiteko esparrua izango den irsgarritasun-plan baten bidez.</p>	<p>Irsgarritasun hobekuntza jardueri bideratuta dagoen aurrekontuaren betetze portzentajea.</p>

11. taula. Ardatz estrategikoetako programa bakoitzaren helburuen eta adierazleen laburpena

5 UPV/EHUko INKLUSIO II PLANAREN KALITATEA BERMATZEKO PROZEDURAK

Plan honen helburu nagusienetako bat da ezgaitasunak dituzten ikasleen aukeraberdintasuna bermatzea unibertsitateko arlo guztietan, eta, horrekin batera, ikasleen arreta hobetzea. Arretaren kalitatea hobetzeko, jakin behar dugu lehendabizi nolako arreta eskaintzen den, zein diren kudeaketarako jardunbide egokiak eta zer alderdi aldatu behar diren, arreta kudeatzen eta eskaintzen duten zerbitzuen errendimendua hobetze aldera. Horretarako, eskaintako zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea ezinbestekoa da.

Gaur egun, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak kudeaketa hobetzeari lotutako bi prozesu ditu martxan: Irisgarritasun Unibertsalari buruzko (IUKS) 170001 arauan oinarritutako kudeaketa-sistema bat ezartzea eta zerbitzuen karta egitea.

Kalitatearen Kudeaketaren filosofia bere egiten duten erakundeek bezeroari bideratutako aldaketan sinesten, eta eguneroko prozesuak etengabe hobetzea bilatzen dute. Herri-administrazioetan, erakundeek Kalitatearen Kudeaketaren printzipioak bereganatzen dituzte, zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta haien eraginkortasuna areagotzeko. Hala, Irisgarritasun Unibertsalaren Kudeaketa Sistema bat (IUKS) edukitzeak honako aukera hauek emango dizkigu:

- Erabiltzaileek eskatutako baldintzak ezagutzeko eta betetzeko prozesuak eta prozedurak edukitzea, eta irisgarritasuna bermatzea Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako arretarako bulegoaren instalazioetan eta zerbitzuetan.
- Prozesu horien kudeaketa hobetzea, eta haien egitekoa hobetzea.
- Zerbitzuari eragiten dioten lege-eskakizunak ulertzea, eta horiek betetzeko mekanismoak ezartzea.
- IUKS ezartzeko, mantentzeko eta etengabe hobetzeko lana egitea.
- Sistemaren barne- eta kanpo-ikuskaritzak egin daitezke, ziurtatze-erakundeek barne, erabiltzailearen, araudien eta geure eskakizunak betetzeko gaitasuna ebaluatzeko.

Bestalde, Zerbitzuen Kartak herri-administrazioen erakundeek erabilitako dokumentuak dira. Horien bidez, herritarrei eskaintako zerbitzuen berri ematen zaie, eta zerbitzuak emateko kalitate-konpromisoak jakinarazten zaizkie. Zerbitzuen kartek, erabiltzaileei beren eskubideak betetzeko erraztasunak emateaz gainera, honako xede hauek dituzte:

- Kalitatearen etengabeko hobekuntza sustatzea; izan ere, zerbitzuaren arduradunei eta langileei aukera ematen zaie baliabideak eta horiek eskain dezaketen kalitate maila aztertzeko modu kontzientean, errealistan eta objektiboan.

- Erabiltzaileen gogobetetzeari begira Zerbitzuak daukan erantzukizuna agerian uztea.

Bi tresna horiek lagungarriak izango dira Planean eta haren ebaluazioen hitzartutako helburuak eta ekintzak betetzen direla bermatzeko.

Plan honek bost urteko indarraldia izango du, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak onartu ondoren. Ebaluazio bat egingo da urtero, eta beste bat indarraldia amaitzean. Ebaluazioak egiteko, adierazleak egin dira, ardatz estrategiko bakoitzean proposatutako helburuen eta ekintzen betetze maila neurtzeko. Era berean, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak urteko memoria bat egingo du, eta bertan jasoko ditu ebaluazio horren emaitzak.

6 BIBLIOGRAFIA

- Abad, M; Álvarez, P. y Castro de Paz J. F. (2008). *Apoyo a la integración de estudiantes con discapacidad en la enseñanza universitaria: algunas medidas y propuestas de actuación orientadora. Revista inter-universitaria de investigación sobre discapacidad e interculturalidad*, 2, 129-150.
- Ainscow, M. (2001). *Desarrollo de escuelas inclusivas*. Madrid: Ed. Narcea.
- Ainscow, M (2004). *Desarrollo de las Escuelas Inclusivas. Ideas, propuestas y experiencias para mejorar las instituciones escolares*. Madrid: Narcea.
- Antonio Peralta Morales (2007). *Libro Blanco sobre Universidad y Discapacidad*. Real Patronato sobre Discapacidad, con la colaboración del Ministerio de Educación y Ciencia, la Fundación Vodafone, ANECA y el CERMI.
- Alcantud, F. (2000). *La integración de Estudiantes con Discapacidad en los Estudios Superiores*. Valencia: Estudi General.
- Alonso, A. y Díez, E. (2008). *Universidad y Discapacidad: indicadores de buenas prácticas y estándares de actuación para programas y servicios*. Siglo Cero, 39, 82-98.
- Álvarez, V. y Lázaro, Á. (2002). *Calidad de las Universidades y Orientación Universitaria*. Málaga: Ed. Aljibe.
- Arnaiz, P. (2000). *Las adaptaciones en el Currículum Universitario. V. reunión sobre Universidad y Discapacidad*. Universidad de Murcia.
- Arnaiz, P. (2003). *Educación Inclusiva. Una escuela para todos*. Málaga: Ed. Aljibe.
- Castellana, M. y Sala, I. (2005). La Universidad ante la diversidad en el aula. *Aula abierta*, 85, 57-84.

- De la Vega, N. y de la Puente, R. (2003). *Integración laboral de las personas con discapacidad. Revista de Servicios Sociales y Política Social*, 62, 15-30.
- Díez Alba, E.; Verdugo, M.A.; del Campo, M.; Sancho, I.; Sánchez, S.; Calvo, I.; y Moral, E. (2011) *Espacio Europeo de Educación Superior: estándares e indicadores de buenas prácticas para la atención a estudiantes universitarios con discapacidad*. Ed. INICO.
- Eusko Jaurlaritza (2012). *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*.
- Forteza, D. y Ortego, J. L. (2003). *Los servicios y programas de apoyo universitarios para personas con discapacidad: estándares de calidad, acción y evaluación. Revista de Educación Especial*, 33, 9-26.
- García de Sola, M. (2006) *Libro Blanco del Diseño para Todos en la Universidad*. IMSERSO, Fundación ONCE, Coordinadora del Diseño para Todas las Personas en España.
- UNESCO (1996). *Helios II. Guía europea de buena práctica: Hacia la igualdad de oportunidades de las personas discapacitadas*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas.
- Ibáñez, P. (2002). *La UNED ante la discapacidad. A Distancia* (monográfico Universidad y Discapacidad). Vol. 20. 1. (20-27).
- IMSERSO (2003). *II Plan de Acción para las personas con discapacidad 2003-2007*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Marchesi, A., Coll, C., y Palacios, J. (1995). *Necesidades educativas especiales y aprendizaje escolar*. Madrid: Alianza Psicología.
- Medina, J. y otros - *II Plan de Calidad de las Universidades*. Consejo de Coordinación Universitaria Secretaría General.
- Moriña, A. (2004). *Teoría y Práctica de la educación inclusiva*. Málaga: Aljibe.
- Rivas, F. (1997). *Principio de igualdad de oportunidades y orientación universitaria en estudiantes con discapacidad*. Universidad de Valencia.
- Rubiralta i Alcañiz, M (2011). *Las políticas sobre Discapacidad en el sistema universitario español*. Ministerio de Educación y Ciencia.
- Soler, P. (2004). *El principio de Accesibilidad Universal en los Servicios de Apoyo*. Universidad y Discapacidad. IX reunión de los Servicios de Apoyo .Universidad de Alicante.
- Stainback, S. y Stainback, W. (2007). *Aulas Inclusivas*. Madrid. Narcea.

- Mazzuca, T.; Sánchez, P; Gil Montoya, M.D.; Gil Montoya, C.; Ibáñez González, M.J.; Reboloso, M.M.; Ramírez, M. y Novas, N. *Cómo diseñar Metodologías Activas Inclusivas en la Universidad*. Grupo docente Comping. Universidad de Almería.
- Van Acker, M. (1996). Disables students in higher education support in European countries. En Van Esbroeck et al. *Successfully adjustment to University and progression beyond in a European context. Proceedings summer school*. FEDORA.
- Van Esbroeck et al. (1996). *Successfully adjustment to University and progression beyond in a European context. Proceedings summer school*. FEDORA.
- Verdugo, M.A Y Parrilla, A (2009). *Presentación. Aportaciones actuales a la Educación Inclusiva*. Revista de Educación, 349, 15-22.

Erakundeen dokumentazioa

- Documento “Guía Europea de Buena Práctica” 1996 Carta de Luxemburgo.
- FEDORA. Forum Européen de L’Orientation Académique. Inventario de los servicios de apoyo en universidades europeas
- Hacia una Europa sin barreras para las personas con discapacidad. Bruselas, 12.05.2000. Comisión de las Comunidades Europeas.
- HEAG: Higher Education Accessibility Guide (*proyecto financiado por la Comisión Europea DG Educación And Cultura y coordinado por la Universidad de Leuven, Bélgica.*)
- “Libro blanco” sobre “política social europea: un paso adelante para la unión” (Unión Europea)
- Normas Uniformes sobre la igualdad de oportunidades para las personas con discapacidad. Asamblea General de las Naciones Unidas. 1993.
- Programa de acción mundial para las personas con discapacidad (ONU, 1982).
- Programa Europeo Helios II “Integración en el ámbito educativo de las personas con discapacidad (1994-1996).
- Tratado de Amsterdam o Consejo Europeo 05-05-2003 Formación y Estudios.

I. ERANSKINA: LEGE ESPARRUA

Nazio Batuek eta nazioarteko beste erakunde batzuek ezgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzea errazteko programak sustatu dituzte. Programa horietan, berriaz aipatzen dira unibertsitateko ikasketak eta estatu-kideen betebeharrak, ezgaitasunak dituzten pertsonen ikasketa horiek egiteko aukera izan dezaten. Nazioarteko komunitatearen sentsibilitateak, dagokien nazioarteko ordezkartza-erakundeen bidez adierazitakoak, estatuei ohartarazi die aukera-berdintasuna eskaini behar dietela ezgaitasunak dituzten pertsoneri.

2003. urtean, Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Europako urtea izan zen, eta 2006an, berriz, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmena” eta haren hautazko protokoloa onartu zituen. Akordio hori nazioarteko tresna bat da; maila juridikoan loteslea da, eta ezgaitasunak dituzten pertsonen giza eskubideak babesten ditu. Horretan adierazten denez, pertsona horiek guztiak giza eskubideez eta oinarizko askatasunez gozatzeko aukera izan behar dute.

Estatuko legediari dagokionez, ezgaitasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasuna, bazterkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsala lortzeari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 legeak argi jasotzen ditu joera berriak, eta “neurri positiboak” finkatzen ditu, hala nola denontzako irisgarritasuna, parte-hartzea eta bazterkeriarik eza. Lehen kapituluan, aukera-berdintasunari buruz honako hau finkatzen du:

“Ezintasunak, zuzenean edo zeharka, sortutako bazterkeriarik desagertzea, bai eta neurri positiboak hartzea ere, pertsona ezinduek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean eduki ditzaketan desabantailak saihesteko edo orekatzeko” (1. artikulua) 51/2003 Legea, (BOE, 289 zk., 2003ko abenduak 3).

Bestalde, abenduaren 21eko 6/2001 UL0a aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Unibertsitateen Lege Organikoak, hogeita laugarren xedapen gehigarrian, berriaz aipatzen du ezgaitasunak dituzten pertsonen inklusioa unibertsitateetan, eta agerian uzten du ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak unibertsitateko ikasketetara sartzeko eta horietan irauteko.

Era berean, Unibertsitateko Ikasleen Estatutuak, abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, ikasle ezinduek sartzeko eskubideen eta betebeharren eragileen artean, honako alderdi hauetan: sarbidea, bitartekoak izatea, irisgarritasuna, ikasle ezinduen mugikortasuna, premien egokitzapena tutoretzetan, eta egokitzapenak ebaluazio-probetan.

Erkidegoko legediari dagokionez, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak berriaz aipatzen du ikasle ezinduen aukera-berdintasuna.

1. Kapituluak: Euskal Unibertsitate Sistemaren printzipioak, helburuak eta egitekoak.

8. artikulua.– Irakaskuntza jaso eta aukera-berdintasuna izateko eskubidea.

2.- Ekonomiako arazoengatik, askatasunik ezagatik, osasun edo elbarritasun arazoengatik edo beste era bateko arazoengatik euskal unibertsitate-sistematik inor ere ez dadin baztertuta gera, Jaurlearitzak arau bidezko garapenari ekingo dio eta aukera-berdintasuneko politikak bultzatuko ditu ikasleei bekak, laguntzak eta maileguak eskainiz, eta gizarteko, ekonomiako eta geografiako oztupoak ezabatzeke politikak garatuz.

41. artikulua.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

2.- Inori ere ezin izango zaio bereizkeriarik egin arraza, generoa, sexu-joera, iritzia, erlijioa, hizkuntza, nazionalitatea, gutxiengoren batekoa izatea zein pertsona moduan, gizartean nahiz ekonomian beste edozein ezaugarri izatea aitzakia hartuta. Unibertsitateek berariazko programak ezarriko dituzte ezinduek unibertsitateko hezkuntzarako duten eskubidea erabat gauzatu ahal izan dezaten.

Era berean, 2001ean I. Plana onartuz geroztik, UPV/EHUren konpromisoa izan da berdintasuna gauzatea modu errealean eta eraginkorrean, eta horrela dago jasota 2011ko otsailaren 11n onartutako Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutueta.

17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzeari buruzkoa.

LEHENENGO TITULUA. UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN IZAERA ETA HELBURUAK

4. artikulua. –

1. – Hauek dira UPV/EHUren helburuak:

2. - UPV/EHUK honako hauek sustatuko ditu:

b) Premia bereziak dauzkaten pertsonak unibertsitateko kideen artean izatea.

3. UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Xede horietarako, UPV/EHUK kontuan izango ditu honako printzipio hauek: aukera-berdintasunarena, aniztasunaren eta diferentziaren errespetuarena, genero-ikuspegia txertatzearena, ekintza positiboarena, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzearena eta ordezkartza orekatuarena.

II. TITULUA. UNIBERTSITATEKO KIDEAK

V. KAPITULUA. PREMIA BEREZIAK DAUZKATEN PERTSONAK

67. artikulua.– UPV/EHUK ekintzak bultzatuko ditu premia bereziak dauzkaten unibertsitateko kideek eta gainerako kideek aukera berdintasun berberak dauzkatala ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu premia bereziak dauzkaten pertsonen eskura.

68. artikulua. –

- 1.– UPV/EHUK bermatu egingo die aukera berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipaturako pertsonen parte hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean.
- 2.– Ezintasunak dauzkaten ikasleak eta unibertsitateko gainerako kideak ezin izango dira izan diskriminatuak beren ezintasunagatik, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitate sartzeko prozesuan, bertan ari direnean, eta titulu akademikoak edo onartuta dauzkaten bestelakoak baliatzean.
- 3.– Ezintasunak dauzkaten ikasleek horrelakorik behar balute, unibertsitateko ikastegiek eta sailek esanguratsuak ez diren egokitzapen curricularrak egingo lituzkete eta ikasleen beharretara moldatutako tutoretza espezifikoak ezarriko.
- 4.– UPV/EHUK egokitu egin beharko du bere ingurunea, legeriak xedatutakoari jarraiki, ezintasunak dauzkaten pertsonak oztoporik gabe ibili ahal izan daitezen bertan.
- 5.– UPV/EHUK kontuan hartuko du ezintasunak dauzkaten pertsonen lana emateko arautegietan xedatutakoa, eta aplikatu egingo du langileak hautatu eta kontratatzean.

II. ERANSKINA: TAULAK

Ikasturtea	Sexua	Ezgaitasuna					GUZTIRA
		IKUSMENA	ENTZUMENA	MOTOREA	BESTE BATZUK	Guztira, sexuaren arabera	
01/02	E	7	6	27	10	50	94
	G	9	2	24	9	44	
02/03	E	6	10	26	12	54	114
	G	11	3	31	15	60	
03/04	E	9	11	36	18	74	147
	G	10	2	45	16	73	
04/05	E	9	13	40	32	94	180
	G	11	2	54	19	86	
05/06	E	9	14	41	32	96	195
	G	13	3	57	26	99	
06/07	E	9	14	51	39	113	243
	G	16	5	64	45	130	
07/08	E	10	11	52	38	111	241
	G	17	6	66	41	130	
08/09	E	11	12	51	46	120	252
	G	15	8	61	48	132	
09/10	E	11	14	50	81	156	298
	G	16	9	60	57	142	
10/11	E	17	19	51	95	182	332
	G	16	11	56	67	150	

1. taula. UPV/EHUn matrikulatutako ezgaitasun duten ikasleen errodaren bilakaera, sexuaren eta ezgaitasun motaren arabera, 2001-2011ko aldian

Ikasturtea	Sexua	Gaivotasun organikoa	Ezgaitasun psikikoa	Ikasteko zailtasun espezifikokoak	Sailkatu gabekoak	Guztira
01 / 02	E	5	3	--	2	10
	G	4	1	--	4	9
02 / 03	E	7	3	--	2	12
	G	6	4	--	5	15
03 / 04	E	14	3	--	1	18
	G	9	5	--	2	16
04 / 05	E	24	5	2	1	32
	G	11	6	--	2	19
05 / 06	E	22	6	2	2	32
	G	14	8	--	4	26
06 / 07	E	28	7	2	2	39
	G	24	15	--	6	45
07 / 08	E	29	6	1	2	38
	G	26	10	--	5	41
08 / 09	E	30	9	1	6	46
	G	32	7	--	9	48
09 / 10	E	45	15	6	15	81
	G	35	9	3	10	57
10 / 11	E	57	15	12	11	95
	G	36	16	8	7	67

2. taula. Beste ezgaitasun batzuen kategoriaren banaketa 2001-2011 aldian

Ikasturtea	Sexua	Ezgaitasunak dituzten ikasle egresatuak					
		IKUSMENA	ENTZUMENA	MOTOREA	BESTE BATZUK	Guztira, sexuaren arabera	GUZTIRA
01/02	E			1		1	5
	G	1		2	1	4	
02/03	E	2	1	1		4	8
	G	2	1	1		4	
03/04	E	2	1	4	1	8	12
	G	1		3		4	
04/05	E	3	2	6	4	15	28
	G	2	1	7	3	13	
05/06	E	3	1	8	4	16	28
	G	2		9	1	12	
06/07	E	2	5	11	7	25	33
	G	1		1	6	8	
07/08	E	2	1	8	9	20	35
	G			10	5	15	
08/09	E	3	2	8	1	14	30
	G	1	1	9	5	16	
09/10	E	1	4	8	4	17	35
	G	2	1	11	4	18	
10/11	E	5	5	7	14	31	66
	G	4	4	15	12	35	
GUZTIRA							280

3. taula. UPV/EHUUn egresatutako ezgaitasunak dituzten ikasleen kopuru osoaren bilakaera sexuaren eta ezgaitasun motaren arabera, 2001-2011ko aldian

Arabako Campusa	
Titulua	Egresatu kop.
Elikagaien Zientzia eta Teknologian Lizentziatua	1
Enpresa Zientzietan Diplomatu	1
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua	1
Euskal Filologian Lizentziatua	2
Farmazian Lizentziatua	3
Frantses Filologian Lizentziatua	1
Gestioaren Informatikan Ingeniari Teknikoa	1
Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu	3
Gizarte Lanean Diplomatu	7
Hispaniar Filologian Lizentziatua	1
Historian Lizentziatua	5
Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologjako Masterra	1
Industria Ingeniari Teknikoa Elektronikan	1
Industria Ingeniari Teknikoa Mekanikan	1
Ingeles Filologian Lizentziatua	3
Ingurugiro Zientzietan Lizentziatua	1
Irakaslea, Haur Hezkuntza	2
Irakaslea, Heziketa Fisikoa	6
Irakaslea, Lehen Mailako Hezkuntza	2
Itzulpengintza eta Interpretazioan Lizentziatua	1
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatua	4
Guztira	48

4. taula. UPV/EHUko Arabako Campusean ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen banaketa tituluaaren arabera, 2001-2011ko aldian

Bizkaiko Campusa	
Titulua	Egresatu kop.
Arte Ederretan Lizentziatua	8
Biokimikan Lizentziatua	1
Biologian Lizentziatua	2
Doktoregoa: Arteko Sorkuntza eta Ikerkuntza	1
Doktoregoa: Elektronika, Komunikazioa eta Automatika	1
Doktoregoa: Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	1
Ekonomian Lizentziatua	2
Enpresa Zientzietan Diplomaturia	6
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua	6
Erizaintzan Diplomaturia	19
Esperientzi Geletako ikasketak	11
Fisikan Lizentziatua	1
Geologian Lizentziatua	2
Gestioaren Informatikan Ingeniari Teknikoa	2
Gizarte Hezkuntzan Diplomaturia	7
Gratuondokoa: Arteko Sorkuntza eta Ikerkuntzan Masterra	1
Gratuondokoa: Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Masterra	1
Gratuondokoa: Finantzak eta Zuzendaritzan Masterra	2
Gratuondokoa: Ikasketa Feministak eta Generoan Masterra	1
Gratuondokoa: Ingurugiroaren Agrobiologian Masterra	1
Ikus-entzunezko Komunikazioan Lizentziatua	2
Industria Automatika eta Elektronikan Ingeniaria	1
Industria Ingeniaria	1
Industria Ingeniari Teknikoa, Elektrizitatean	2
Industria Ingeniari Teknikoa Elektronikan	2
Industria Ingeniari Teknikoa, Industria Kimikan	1
Ingurugiro Zientzietan Lizentziatua	1
Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria	2
Irakaslea, Haur Hezkuntza	6
Irakaslea, Lehen Mailako Hezkuntza	2
Itsasketan Diplomaturia	1
Kazetaritzan Lizentziatua	17
Lan Harremanetan Diplomaturia	6
Meatzeen Ingeniaria Teknikoa, Meatzeen Ustiakuntzan	1
Medikuntzan Lizentziatua	6
Odontologian Lizentziatua	2
Politika eta Administrazio Zientzietan Lizentziatua	4
Publizitate eta Harreman Publikoetan Lizentziatua	2
Soziologian Lizentziatua	2
Telekomunikazioan Ingeniari Teknikoa	1
Zuzenbidean Lizentziatua	2
Guztira	140

5. taula. UPV/EHUko Bizkaiko Campusean egresatutako ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen banaketa titularen arabera, 2001-2011ko aldian

Gipuzkoako Campusa	
Titulua	Egresatu kop.
Arkitektura Teknikoa	3
Doktoregoa: Kimika	1
Enpresa Zientzietan Diplomaturia	4
Erizaintzan Diplomaturia	6
Filosofian Lizentziatua	2
Gizarte eta Kultura Antropologian Lizentziatua	3
Gizarte Hezkuntzan Diplomaturia	10
Graduondokoa: Ideia, Forma eta Materia Arkitekturen Doktoregoa	1
Graduondokoa: Kimika Aplikatua eta Material Polimerikoetan Masterra	1
Informatikan Ingeniaria	4
Industria Ingeniari Teknikoa, Elektrizitatean	1
Industria Ingeniari Teknikoa, Kimikan	2
Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza	3
Industria Ingeniari Teknikoa, Mekanikan	2
Irakaslea, Haur Hezkuntza	4
Irakaslea, Hezkuntza Berezia	16
Irakaslea, Lehen Mailako Hezkuntza	5
Kimikan Lizentziatua	2
Medikuntzan Lizentziatua	1
Pedagogian Lizentziatua	2
Psikologian Lizentziatua	5
Psikopedagogian Lizentziatua	4
Sistemen Informatikan Ingeniari Teknikoa	1
Unib. espezi: Garapen Jasangarria, Tokiko Agenda 21eko Udako Kudeatzailea	1
Unib. espezi: Giza Eskubideak Mundu Globalean	1
Zuzenbidean Lizentziatua	7
Guztira	92

6. taula. UPV/EHUko Arabako Campusean ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen banaketa tituluaren arabera, 2001-2011ko aldian